Arbelari begira

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa | IV edizioa

2012-2013

Jon Artanok eta Nagore Amondarainek Berria egunkarian idatzitako kronikak

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

2012-10-22

Iztuetaren hiru geltoki

Nagore Amondarain

Ikastaroa hasi baino lehen, aparkalekuan hasi da gerra osteko Paulo Iztuetaren kontakizuna, Arratia harana entzutearekin batera. 1969an Parisera erbesteratu aurretik, Arratian emandako urteetan, apaiz ikasketak egiten, lanean zein filosofia irakasle moduan, bere aleak utzi baitzituen. Etxetik transmititu zaigu gaur arte, Arratiako belaunaldi baten erreferente bihurtu baitziren Areatzako Sakramentinoen bueltako orduko elizgizonak. Maite Idirinek Atahualpa Yupanki euskaratzeko eskatu zion garaian, orduko Arratian.

Aretxabaletako egoitza berrian, dagoeneko gela barruan, Paris, Donostia eta Bilbo, hiru hiritan kokatu ziren hiru idazle hartu ditu gaitzat Iztuetak, gerra aurretik jaiotakoak hirurak. Haien gerra osteko literatur emariaz arituko da, bigarren euskal pizkunde moduan ezagut daitekeen garai horretan kokatuta.

Guraso zuberotarrak izan arren etxetik euskararik ez zekarren Jon Mirandez aritu da aurrena. Andimak ekarri zuen euskararen mundura Parisen, eta 1949rako euskararen munduan erabat sartua zen. Miranderen artikulu filosofiko eta politikoez mintzo da Iztueta. Kristautasunaren aurkako erreakzioak izadia edo barne intuizioa defendatzera eraman zuen. Iraultza estetikotik eratortzen dira Miranderen tesi politikoak, norabide horretan ulertzen baitzuen bilakaera. Ezin aipatu barik utzi *Haur besoetakoa;* Iztuetaren iritziz, Rousseauren *Emilio* obrara hurbilketa bat egon daiteke, gizon-emakume, osaba-iloba harreman horretan.

Donostiara salto eginez, Txillardegi idazlea aurkeztu digu. Eta beronen *Orangutanen uhartea* ipuin alegorikoa, *Leturia* eta *Peru Leartzakoa*. Existentzialismoa ulertzeko zailtasunen aurrean, Orixeren eraso dialektikoa Txillardegirekin zein gerora berarekin, Iztuetarekin, kontatu digu. Baita zelan aztertu zuen Ibon Sarasolak Txillardegi kritika formalistatik ere, Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* goraipatuz Txillardegiren obraren aldean. Txillardegik eta Mirandek barrura begiratzeko begia nahiko hurbil omen zuten, sentipenak, kontzientzia ulertzeko modua.

Eta azken begiratua Gabriel Arestiren Bilbori eman dio. Aresti idazle zirikatzaileak bihotz nazionalistak probokatu zituen, inongo ur sakonetan igeri egin barik ibili baitzen; alderdi komunistako orbitan zebilen era berean, orbita euskaltzalean ere mugitzen zen.

Galde-erantzunen tartean, 1973 inguruan izan zen eten sekularrari buruz mintzo da Iztueta, eten horretan gertatzen den erakundetze politiko eta intelektualaz. Asko luzatu gabe, hor utzi du ikerketa-gai izan daitekeen bide bat. Arratian emandako

urteek izango zutelakoan arrastorik eten horren bilakaeran, horrela bueltatu da bat ikastarotik etxera bidean.

2012-10-23

Gure paraderoa

Jon Artano

Mari Karmen Garmendiari txanda hartuz, gelara sartu eta, bere eskola magistrala hasi aurretik beheko solairuan zizka-mizkak ditugula esan digu Larraitz Ariznabarretak, «eta ardo beltza ere bai». «Hain fede gutxi al duzu zure jardunean? Ardoa behar al dugu ez aspertzekotan?» bota diot burrustan, hainbeste urteren ostean unibertsitatera itzultzearen laineza. Barre egin dit. Eta, behera jaitsita, pare bat baxoerdi edan ditugun arren, ez zegoen beharrik. Joria eta apasionatua izan da bere hitzaldia.

«Nor naiz, exiliorik gabe?». Galdera horrekin hasi da irakaslea. Euskaldunok geure buruari itaun hori eginez gero erantzuna etsipenez betea dela esan digu. Exiliatuei esker garelako, eta haiei esker gaudelako gauden lekuan. Exilioari buruz hitz egitera etorri zaigu, beraz, Ariznabarreta. «Kobazulo ilun baten gisara» erakarri zuelako bera euskal exilioak. Eta Martin Ugalderi buruz hitz egitera, «euskal exilioaren sinekdokea»; Bernardo Atxagak esan omen zuen «Ugalde exilioa da». Deslekua sorleku bihurtu zuela ere esan zuen Atxagak Ugalderi buruz.

Gaztetxotatik bizitzea tokatutakoak betiko markatu zuen Ugalde. Gerratik ihesi jaioterria utzi eta familia sakabanatu egin zen: 1940ko udaberrian Gurs-eko kontzentrazio-esparruan sartu zuten, 18 urte zeuzkan eta bakarrik zegoen; anaia gerra hasieran ebakuatu zuten Errusiara, Stalingradora aurrena eta Odessara gero; aita Venezuelan, eta ama Andoainen, koinataren etxean. Gerora elkartu ziren denak Venezuelan. Eta han ekin zion lanari.

Euskararentzat hil ala bizikoa zen egoera, eta exiliatuak kontziente ziren trantze hartan egokitu zitzaien paperaz. Horrek azaltzen du, Ariznabarretaren arabera, haien emankortasuna, lanerako gaitasun nekaezina. Haien obraren larritasunak, eta lan hura garatzeko baldintzez jabetzeak, miresmena sortu ohi du. Eta begirada arbeletik ikaskideengana, norberagana ekarriz gero, zalantza, akaso: haien ondoan negarra jotzen espezialistak ez al gara gu? esne mamitan hazitako kastafaltsuak?

«[Exiliatuak] Kontziente ziren beraiek egiten ez bazuten inork ez zuela egingo». Eta gu kontziente al gara? Denbora asko ez dela kontatu zigun Andoni Egañak, egunkari honetan bertan, beharra izan ohi dela irakaslerik onena. Haiek bazekiten egin egin behar zela nahitaez, nahiz eta sarritan nola jakin ez. Eta hainbeste denbora pasatu ostean ez ote gaude oraindik ere horretan? Egin egin behar dugu derrigor, eta beti ez dugu jakiten nola.

2012-10-30

Lekutan gaude

Jon Artano Izeta

Aita arrantzalea zuten, ANVko gudari zaharra, eta Ternuan pasatzen zuen urteko zatirik handiena. Etxeratzean sutu egiten zen seme-alabak beti erdaraz sumatzen zituelako. Eta hauxe bere errieta: «Non gaude? Espainian ala!?». Amak ere arreta berezia jartzen zion hizkuntzari. Eta galga lana egin omen zuen Donostiara, ingurune erdaldunera, aldatzearekin hasitako Arrieta-Ugartetxeatarren desjatorritze meteorikoan.

Familia-istorioak aditzea gauza ederra da, ondo kontatzen baldin badizkizute. Urriaren 24ko bazkalondoa Joxe Agustin Arrietak goxatu zigun lirismoz zipriztindutako hitzaldi kaleidoskopiko batekin —eta hutsartean estimazio handia izan zuten teila eta zigarrotxo kaxa pare batekin—.

Bere euskaltzaletasunari dagozkion bizipen fundazionalak kontatu zizkigun. Eta geuri ere ariketa bera egitea gomendatu, «erroei erreparatzea osasungarria delako». Kontatu zigun nola Pello Kirteni —Txomin del Regatoren Donostiako homologoa— zor dion, hein batean, kontzientziaren piztuera. Nago euskara etxetik kanpo ere natural jaso izan dugunontzat ez dela hain erraza bihotzak kra! egin digun une jakinak topatzea gure biografian.

Idazle eta itzultzaile donostiarrak zioen akitua dagoela elkar ulertu ezinaz, «beti izan garelako banderizoak». «Lubakietako diskurtsoak egokitu eta, norberaren ideologiari uko egin gabe, lanerako elkarguneak topatu beharra», azpimarratu zuen.

Etsipenaren eta itxaropenaren arteko kulunkan bizi gara, eta egindako aurrerabidea aitortu arren autokonplazentziatik sortutako diskurtso satisfetxoetatik antipodetan dago Arrieta. «Euskararen asturua ez da gaur ere segurua», esan zigun. Gurea ez dela gripea, «minbizia baizik». Eta 60-70etako inarrosaldiaren moduko beste txanpa baten premia dugula.

Pidginaz, dialektalismoaz, *Xora* filmaz, Irlandaz, Eskoziaz, politikaz eta estatuaz ere jardun zitzaigun. Txillardegiren «estaturik gabe ziur ezetz» hura bere eginagatik independentziaren panazeismoak beldurra eman beharko ligukeela eta lehentasunak «hizkuntz komunitateari bizirik eustea» behar duela.

Joxe Manuel Odriozolaren *Estatu etnozidaren kontra* liburua goratu zuen: «Gu bezalatsu dauden beste dozenaka hizkuntz-herriren berri ematen duelako, galbidera garamatzan gaitza diagnostikatuz eta sendagaiak identifikatuz». Eta zein da errezeta? Egoerari buelta ematea lortu duten herrietako —*hiztun-herri beregainak* esaten die Odriozolak— planteamendu holistikoa; «ez alor bakarra lehenetsiz, hemen

irakaskuntzarekin bezala».

Boto eskubidea izateko bertako hizkuntzaren ezaguera frogatu behar dute errepublika baltikoetako errusiarrek. Hemen ez da oraindik pausatu GFAk euskara lehenesteko hartutako pare bat oinarrizko erabakik harrotutako hautsa. Milaka kilometrora gaude. Lekutan gaude.

2012-11-06

Baikortasun kritikotik

Nagore Amondarain

Eskola egun batetik bestera, gaiak nola doazen harilkatzen ikustea emankorra da, ikaslearentzat zein hizlariarentzat. Urliak esandakoa eskola egun horretako adituari galdetu, bere iritziak jaso eta hurrengo hizlariak gaia biribildu. Horrela eman da eleaniztasunaren gaia azken eskola egunetan, Mari Karmen Garmendiarekin hasi, Joxe Austin Arrietarekin jarraitu eta Julen Arexolaleibarekin sakonduz.

Lanean, Txepetxen teoriekin genbiltzala, ezagutu genuen Julen Arexolaleiba, edozein normalizazio egitasmotan agertzen diren bi izen. Motibazioa, ezagutza eta erabilerari ekinean genbiltzan, baina 2005eko buelta hartan, Txepetxena gaindituta zegoela esaten zuenik bazen, beste alternatibarik proposatu barik. Gerora, holakoen jarduna Pixka bat es mucho eta antzeko kanpainak sustatzera pasatu zen edo asimetria linguistiko-geografikoa defenditzera.

Artzeren poema batekin hasi du hitzaldia Julenek, euskara elkarteen topaketa baterako beren-beregi sortutako poema harekin. Poemaren egitura izan zitekeen hitzaldiaren hezurdura, poemaren hasieran aipatzen baita hizkuntzak ez ezagutzearen lotsa. Eta galdera bat bota du: ea nola bizi dugun gaztelania jakitea. Larrepetit-en Idoia Etxeberriak idatziriko Erdaldunberriaren ajeak artikuluari egin dio aipamena, harrigarria bada ere, ez baita kanpokoa lotsatzen euskara ez jakiteaz, bertakoa kanpokoena ez jakiteaz baino.

Baina hiztunetik harago, hizkuntza komunitatean ere indarra egin beharra dagoela dio. Eleaniztasuna aho beteko hitz politegia da, baina azken bi eskola egunetan argi azaleratu da ikaskideon kezka, terminoaren gehiegizko edo azaleko erabileraz. Eremu indibidualean planteatzen denean ulergarria izan daiteke terminoa bera, posible ere bai baita, baina beste gauza bat da eremu sozialerako baliatzea, hain irmoki, eleaniztasuna hitzaren sinpletasunean.

Txepetxen A eta B zirkuituak eta ontzien tesiak sakonki azaldu ditu Julenek, eleaniztasunaren barruan egon daitezkeen aldaera guztiak bilduaz, hitzaren eta ekintzaren konplexutasuna ekarri ditu.

Poemaren hezurdurak elkarrekin bizitzea aipatzen du beronen azken lerroetan, eta hor dakar Julenek diglosiaren gaia. Hizkuntza batek bestea desagerraraziko du, nahiz eta ez den erosoa honetaz hitz egitea eta bien bitartean, hura gertatu bitartean, diglosiaren bidean jarriko. Hiru diglosia motaz ari da berbetan; erdi diglosiaz, diglosia partzialaz (Flandria, Alsazia aipatuz) eta erabateko diglosiaz edo lurralde mailakoaz. Azken horretan kokatzen du euskara, gaelikoarekin bat. Egoeraren larritasuna irauli nahi

duen pertsona izanik, azkenaldian ezkortasun aktiboan baino baikortasun kritikoan mugitzen ari dela aitortuz amaitu du saioa.

2012-11-13

Jon Sarasuaren puntu erantzunak

Jon Artano

Euskaltasunaren norabideaz liburua idazten ari da Jon Sarasua. Azken hamar urtean hizkuntzaz eta kulturgintzaz egindako gogoetak bilduko ditu.

Juxtu orain bi urte kaleratu zuen *Ertzeko zatiak* zoragarrian, «bertsolari ohi» dio bere buruaz aretxabaletarrak. Ohi izango da, berak badio, baina puntuei erantzuten jardun zitzaigun lehengoan. Eskolaren lehen zatian, idazten ari den horretatik «inportante samarrak» iruditzen zaizkion ideiak isuri zituen. Apunteetan azpimarratuta dauzkat hizkuntzarekiko atxikimenduaren lasaitzeaz, eta euskaraz bizitzeko nahimenaz —non eta nola elikatzen den— aditutakoak.

Gero, bi minutu eman zizkigun ikasleoi hitz edo iruzkin bana pentsatzeko. Eta jolasa hasi zen: guk puntuak jarri eta berak erantzun. Dozenerditik gora joan ziren. Atomizazioaz —euskaldunon energia sozialaren ifrentzua, haren iritziz—; erresonantzia kaxa berrien beharraz; publiko-pribatu dikotomiaz, eta euskalgintzari eragiten dion marruskaduraz; Kontseiluaz...

Aurreneko arrapostua izan zen biribilena, nirekiko. Iñaki ikaskideak «globalizazioaren erasoa» aipatu zion, eta bi kontzepturekin erantzun zion maisuak hitzetik hortzera: betaurreko bifokalak eta errefluxua.

Honatx azalpena: Soziologia miopea da, hurbileko ezaugarriak ondo ezagutu baina urrunekoez ez dakiena; soziologia hipermetropea, aldiz, urrunekoaz asko dakiena baina hurbilekoa behar bezala behatzen ez duena. Oro har, azkenaldian, asko erreparatzen diogu mundutik datozkigun joerei —teknologikoak nahiz gizarte sikologiakoak— eta sarritan ahaztu egiten ditugu geure komunitatearen dinamika propioak eta berezko indarguneak. Eta badirudi Miamin nola bizi diren jakin behar dugula kanpotik datorkigun olatua saihetsezina delako. Sarasuaren ustez, determinismo hori erlatibizatu egin behar da, ordea. «Hemen, kuadrillak daude, eta jendea taldetasun gregario harrigarrian bizi da. Hemen, elkarte gastronomikoak eta kulturalak daude. Dena delakoetako 40 lehendakari zenbatu genituen Aretxabaletan egindako ikerketa batean. 40!». Ikasgela algaraka hasi da. «Gure hiztun komunitateak Miamikoen aldean oso anormalak diren zirkuituetan funtzionatzen du. Horregatik, biak ikertu behar dira: Miamikoa eta hemengoa».

Betaurreko bifokalak, beraz, globalizazioaren sentipen agonikoa ñabartzeko. Eta errefluxua ere bai. Historian errefluxuak gertatzen direlako eta «jendea aspertuko delako orain booma diren gauzekin, eta atzera egingo duelako. Orain hiruzpalau urte immigrazioa zen euskararen arazo nagusietako bat; nor oroitzen da gaur horretaz?».

Lokaltasunaren itzulera iragartzen duten zantzuak eta diskurtsoak ere aipatu zizkigun. «Beharbada, ezinbestekoa izango dena petrolio merkearen bukaerarekin». Joseba Azkarraga Etxagibelen *Euskal Harriak* etorri zait gogora. Hango *desazkundea*' eta *pozazkundea*. Aldaketa, euskaldun jendeontzat ere, hobera izango ahal da!

2012-11-20

Irratia, ordutik gaur arte

Nagore Amondarain

Joxe Mari Iriondoren hasierak Loiola irratian 1961eko udazkenekoak dira. Uhin ertainean emititzen zen bere sorreran, baina, 1964an, frekuentzien lege berriarekin, egungo FMa etorri aurretik, irratia itxi beharrean izan ziren tarte labur batez, eta 1965ean ekin zioten berriz euren jardunari. Irrati antenen gorabeherak egungo irrati libre batzuen dinamiketatik ez zebiltzan oso urruti, bazkari baten ostean bero-bero eginda mendira zelan abiatu ziren kontatu baitzigun, antena jartzeko leku egokienaren bila. Antena bera ikusten zen leku guztietatik entzun zitekeela, horixe zen zuten lehen ezagutza; gerora, baserriz baserri antena dipoloak jartzea etorri zen. *Andre Gizonak* zortzi minutuko esketx laburren saioa eta *Beti Jai* irratsaioak aipatu ditu bere sehaskako ume gisa, esatari lanetan zein gidoiak atontzen batean zein bestean.

Irratian ibili zen sasoi horretan denetarikoak egin zituen, irratigintzaz ulertzen duguna egun eta urrutiagokoak ere bai. Urtebetean 76 jaialdi baino gehiago aurkeztu zituen, Xalbador Egunaren antolaketa, fonotekako artxibo lanak, aurreneko musika grabazioak edo Arrateko igoera Encarna Sanchezekin batera erretransmititu zuen, adibidez. Kanpoko emanaldietan asko ikasten omen zen; ausarta izan beharra zegoela diosku, Garaikoetxeari zuzeneko batean lepotik zelan bota zion mikroaren haria inguruan bizkartzainek ezetza eman ostean. Ministerio de Informacion y Turismok, zentsura kontrolatzen zuten haiek, *Gernikako arbola* jartzeagatik salaketa jarri zioten Francoren garaian. Berdinek inposatu zuten *bucle* sistema, hiru segundoren aldearekin erdi zuzenekoa egitea, behar ez zena ekiditeko, alegia. Txiki eta Otaegiren hilketen ostean, entzule batek zuzenean grebarako deia egin ostean hartu zen neurria.

Bertsoak eta trikitia omen ziren mokadurik eskergarrienak irratian. Jabetuta zeuden irratsaioak euskaraz eskaintzeak erabileran planteamendu berri bat ekarriko zuela, edozein gairi buruz euskaraz aritzea bazela erakutsi nahi zuten 60ko hamarkadan.

Egungo irrati lizentzien banaketari lotsagarria deritzo, eta azken bi gobernuei leporatu die neurriak ez hartzea. Bekokia zimurtuz dio Noticias taldeak zelan isilarazi duen euskara Loiola-Herri Irratia, Onda Vascara igarotzean. Eta adibideak topatu nahian web atariraino egin dut salto; izena bera erdalduntzeaz gain, ataria bera gaztelania hutsean zelan bistaratzen den ikus daiteke.

EITBz galdetuta, hango zuzendaritzak oso euskaltzalea izan behar duela esanez amaitu du irratitik telebistarako bere ibilbidearen kontaketa.

2012-11-27

1.234 urte, 144 minututan

Jon Artano

Bi ordu eta hogeita bi minutuz hitz egin zigun. Azkar eta ondo gainera. Eta denak esan gabe geratu zen. Etxekoa dute HUHEZIn eta, konfiantzan, azken hamarkaden errepasoa behar zukeena Orreagatik hasi zuen Jose Angel Irigaraik. «Orduko Bush eta NATOri erasoz, lehen aldikotz historian, baskoiek subjektu politiko bezala aurkeztu zutelako euren burua». Aretxabaletako fakultatetik Orreagako gudura. 1.234 urteko jauzia.

Xarlemagne, Picaud, Etxepare, Leizarraga, De Lancre, Kanpion eta Arana, Stalin, Oteiza, Zizek eta Kastoriadis... Ikasgelatik erudizioz berdoztuta irteteko arriskuan geundekeen, Irigarai doktoreak ez balu bere hizketa hain ederki maneatu gatz-piperdun digresioez. Esate batera Jose Paulo Ulibarriren —XIX. mende hasierako Okondoko albaitaria— eskutitzak irakurriz. Duela 200 urte euskarazko «ikasolak» suharki aldarrikatzeak gehienok harritu egin gintuen; Ulibarrik «bihotzeko emaztetxo on-ona»-ri idatzitako pasarte erotikoek denok bixitu gintuzten: «Ohe hartan hamazazpi bider zeugaz ametsetan isuri hazia... ai Maripepatxu!».

Halako batean iritsi zen azken mende erdira. Gure kulturak aitzindaritza hartu zuenekoak kontatu zizkigun, Ez Dok Amairukoak-eta. «Erdaldunak geuri so» geneuzkanekoak, «hor badago irakasbidea gure konplejuentzako».

Bere ustez trantsizioan hasi zen degradazioa, kulturan bezala politikan. Egurra eman zien muineko bi motor politikoei: batzuk Agirre traizionatu eta oportunismoan jausiz otapurren zain egon direlako; besteak infantilismo politikora eraman zituelako amets zapuztuen frustrazioak. «Finean txanpon beraren bi aurpegiak, estrategiarik ezarenak». Euren jarduna estatuak egiten duenaren arabera ardaztu izan dutelako, heteronomiaren arabera; autonomismotik batzuk, autonomiarik gabe biak. «Zure kontzientzia, dinamikaren muina... ez datza zugan; sisteman baizik. Hori da grabeena, harrapatuta zaudelako. Pentsa ezazue 40 urte hauetan zenbat galdu dugun».

Eskolaren hondarrean planteatu zizkigun gairik-eta potoloenak. «Sua eta etxea» dikotomia faltsua adibidez. «Herria, herrigintza, sua bada. Ez dago surik etxerik gabe; ez etxerik surik gabe. Ez da bat bestea baino lehenago; biak memento berean behar dira, lotuak daude». Eta integratzeko zailtasunaz esandakoak: «Zer gertatzen zaigu bide amankomunetan ez ibiltzeko funtsezko bizi estrategian? Ez dut uste beste herriak baino madarikatuagoak garenik. Uste dut ez dugula benetan ikusten zein den bizi estrategia hori, behetik gabiltzala eta behetik ibiliz gero, endogamia horretan, liskarrak eta kontrabideak ugaritzen direla». Behe-lainoa.

Eta korolario modura esan ziguna: «Politikoki jardun behar dugu, politikaren zentzurik

nobleenean. Ez gaitezen ahantz kultura, modu zabalean ulertuta, bizitzeko era, existentzian kokatzeko gure modua, konstituientea dela».

2012-11-27

1.234 urte, 144 minututan

Jon Artano

Bi ordu eta hogeita bi minutuz hitz egin zigun. Azkar eta ondo gainera. Eta denak esan gabe geratu zen. Etxekoa dute HUHEZIn eta, konfiantzan, azken hamarkaden errepasoa behar zukeena Orreagatik hasi zuen Jose Angel Irigaraik. «Orduko Bush eta NATOri erasoz, lehen aldikotz historian, baskoiek subjektu politiko bezala aurkeztu zutelako euren burua». Aretxabaletako fakultatetik Orreagako gudura. 1.234 urteko jauzia.

Xarlemagne, Picaud, Etxepare, Leizarraga, De Lancre, Kanpion eta Arana, Stalin, Oteiza, Zizek eta Kastoriadis... Ikasgelatik erudizioz berdoztuta irteteko arriskuan geundekeen, Irigarai doktoreak ez balu bere hizketa hain ederki maneatu gatz-piperdun digresioez. Esate batera Jose Paulo Ulibarriren —XIX. mende hasierako Okondoko albaitaria— eskutitzak irakurriz. Duela 200 urte euskarazko «ikasolak» suharki aldarrikatzeak gehienok harritu egin gintuen; Ulibarrik «bihotzeko emaztetxo on-ona»-ri idatzitako pasarte erotikoek denok bixitu gintuzten: «Ohe hartan hamazazpi bider zeugaz ametsetan isuri hazia... ai Maripepatxu!».

Halako batean iritsi zen azken mende erdira. Gure kulturak aitzindaritza hartu zuenekoak kontatu zizkigun, Ez Dok Amairukoak-eta. «Erdaldunak geuri so» geneuzkanekoak, «hor badago irakasbidea gure konplejuentzako».

Bere ustez trantsizioan hasi zen degradazioa, kulturan bezala politikan. Egurra eman zien muineko bi motor politikoei: batzuk Agirre traizionatu eta oportunismoan jausiz otapurren zain egon direlako; besteak infantilismo politikora eraman zituelako amets zapuztuen frustrazioak. «Finean txanpon beraren bi aurpegiak, estrategiarik ezarenak». Euren jarduna estatuak egiten duenaren arabera ardaztu izan dutelako, heteronomiaren arabera; autonomismotik batzuk, autonomiarik gabe biak. «Zure kontzientzia, dinamikaren muina... ez datza zugan; sisteman baizik. Hori da grabeena, harrapatuta zaudelako. Pentsa ezazue 40 urte hauetan zenbat galdu dugun».

Eskolaren hondarrean planteatu zizkigun gairik-eta potoloenak. «Sua eta etxea» dikotomia faltsua adibidez. «Herria, herrigintza, sua bada. Ez dago surik etxerik gabe; ez etxerik surik gabe. Ez da bat bestea baino lehenago; biak memento berean behar dira, lotuak daude». Eta integratzeko zailtasunaz esandakoak: «Zer gertatzen zaigu bide amankomunetan ez ibiltzeko funtsezko bizi estrategian? Ez dut uste beste herriak baino madarikatuagoak garenik. Uste dut ez dugula benetan ikusten zein den bizi estrategia hori, behetik gabiltzala eta behetik ibiliz gero, endogamia horretan, liskarrak eta kontrabideak ugaritzen direla». Behe-lainoa.

Eta korolario modura esan ziguna: «Politikoki jardun behar dugu, politikaren zentzurik

nobleenean. Ez gaitezen ahantz kultura, modu zabalean ulertuta, bizitzeko era, existentzian kokatzeko gure modua, konstituientea dela».

2012-12-04

Ereite kualitatiboa

Nagore Amondarain

Ereinaldiaz aritu zaigu Jon Sarasua, atontzen ari den liburuko kapitulu bat gai horren ingurumarian joango baita. Ereitearen ideia ez dela batere originala dio, ikastolen sorrerako bulkada ere horixe bera izan zelako, adibidez. Baina egungo ereitea aipatzen duenean, ez da ari ereite kuantitatiboaz, ereite kualitatiboaz baizik. Egin dugun ahalegin kuantitatiboak ez duelako hainbesteko eragin kualitatiborik izan, hizkuntzarekiko eta kulturarekiko atxikimenduan adibidez. Atxikimendua ulertzeko eta bizitzeko modua mudantzan baitago.

Hezkuntza arautuari azkurak bilatzea errepikakorra ari da izaten graduondoko honetan, eta ez da kasualitatea izango Joxe Angel Irigaraik ere aurrekoan zera esatea: «Dramatikoa da egungoa, desmartxa hau irakaskuntzan…». Euskaraz bizitzeko hautua egitera garamatzaten elementuak herren daude; ez gara gai izan motibazioa, ezagutza eta erabilera orekatzeko. Egindako lana izan da gu geu hemen idazten egotearen zutabe nagusia, baina norantz doa hainbeste urtetan egin den ahalegina? Eta ereinaldi honetan erneko denaz arduratzea dagokigu, baina kontuz Monsato haziekin eta ugaritzean ugaritzearekin, minoria izaten jarraituko baitugu denboraldi batean.

Nor ez du arduratzen hurrengo belaunaldietarako subjektu eragileen masa kritikoak? Horixe Sarasua artegatzen duten zereginetako bat. Hiztun komunitatearen ahalmen soziopolitiko eta kulturala garatzeko eragile horiek, gela barruan bazka jasota hausnarrean dauden ikasleak, skate parkekoak edo sehaskan edo likido amniotikoan daudenak izango baitira. «Euskaldun koherente eta konpetente izatea ez da hiritar estandar baten kondizio linguistiko bera» ezertan hasi aurretik barneratuta izan beharko genukeena, eragina baitu norabidea markatzerako estrategietan. Kondizio ez-estandarra horrela azaleratzea zoru labainkorra izan daiteke, eta batzuetan nahiago dugu egoera estandarraren desirarekin lan egin, fikzio bat sortuz gela barruetan. «Hezkuntza arautuan ez dira prestatzen belaunaldi berriak euskal hiztun izateko behar dituzten baliabideetan», gogorra izan behar du esatea eta, zelan ez, entzutea. Baina esperantza eta indar puntua eman beharko liguke zein hiru alderdiri erreparatu beharko geniokeen jakinarazteak; arrazoibidearen inguruko baliabideak (jakintza soziolinguistikoa), kalitatearen ingurukoak eta kultura eta sorkuntzaren ingurukoak.

2012-12-11

Astelehen goizeko poza

Jon Artano Izeta

Oso pozik» antolatzaileak. Eta «pozik» erakustokietakoak, editoreak, sortzaileak eta saltzaileak ere. «Iazko bisitari kopurua gainditu, eta espero baino salmenta handiagoak izan direlako». Igande gauean leitua *berria.info*-n. Ostegunean izan ginen Durangon, eta iluntzerako pozarren zeuden jada, Centro Palentinoan fortunatu zitzaizkigunak behintzat. Ez zen Goienkaleko ordu txikietako euforia, baina txokatuta geratzeko lain bai. Bisitarien aldarteaz ezer ere ez zioen informazioak. Eta komeni horiena ere jakitea, domekan bertan, sortzaileen eta kontsumitzaileen arteko etena azpimarratu zutelako zenbait adituk. Hitzaldi ziklo baten hondarrekoan izan zen. Gaia, hauxe: *Euskal kulturgintzak hedabideetan duen ikusezintasuna*.

Gure kulturaren ikusgaitasuna... Andoni Sagarna liburuenaz aritu zitzaigun, liburugintzaz oro har, Elkarren egindako lanak emandako talaiatik. «Liburu azokak ugaldu zirenetik liburu baten bizi esperantza, guti gorabehera, barazki batena lakoa» dela idatzi zuen Sarrionandiak. 1997ko azokan aurkeztu zen *Hitzen ondoeza*. Eta ez omen da dena azkartu 15 urtean!

Sagarnak zikloa estreinatu du Aretxabaletako fakultatean. *Euskal kulturgintzaren ekosistemak* jarri diote atal berriari. Eskola Durangoko Azokoaren aurretxotik izaki, hangoaz ere galdetu diogu. Ekosistema bakan horretaz, oparoa bezain iragankorra, euri ostean loratutako desertua bezala. Sagarnaren ustez, «Euskal Herria ezaugarritzen duten fenomenoetako bat, kanpokoentzat harrigarria. Gauzak ondo egiten ere badakigula erakusten duena, erromeriatik ere baduen arren».

Kultura batek kultura industria sendoa behar duela esanez hasi zen. Euskal kulturgintzarekiko konpromisoa bete ahal izateko, eraginkortasun kulturala izateko, eraginkortasun ekonomikoa baitezpadakoa dela.

Negozio ereduaren aldatzeaz, denda independenteen estutasunez, teknologia aldaketez, merkataritza elektronikoaz... hitz egin zigun. Datozkigun erronkei erantzuteko «esnatu beharraz» finean, azpiegitura sendoak lortzeko. Aitortu zuen horrek inbertsioa eskatzen duela, *asunto* gaitza diru sarrerak lermatzen ari direnean. Produktuen dibertsifikazioan zirrikitu bat igar daitekeela zioen, betiere arlo desberdinetan ari direnekin elkar hartuz. Produktuaz gain eskaintzen den erosketa esperientzia eta eduki marketina zaindu beharra ere aipatu zuen. Eta errealitate areagotuak hartuko duen garrantziaz ere adibide harrigarriak eman zituen.

Iratzarri ondorengo ondoezari goizerrea esaten zaiola ere Sarriri ikasi genion. Goizerrerik gabeko esnaera izango zuten atzo liburu saltzetik bizi direnek, astelehen

gozoa —kultura bonua ere atzoz geroztik eskura daiteke—. Baina ospakizun denek bezala, Durangok ere badakar bere ajea. Egin sartu-irtena Juan Luis Zabalaren *Inon izatekotan* blogean. Axaleko irudipen batzuk jarri ditu motxean. Zazpi, hain justu; bekatu nagusiak bezala.

2012-12-18

'Euscool' kultura eta beste

Nagore Amondarain

Ruperren *Egin kontu* abestia aztertzen jarri gintuen Pedro Elias Igartuak (ingeleseko irakasle eta musika kritikoak) institutuko eskola egun batean. Ia 18 urte geroago, bestelako eskola egun batean, Iñaki Urruzola irakasleak ariketa beraren aurrean jarri gaitu. Euskal kultura zer den eta zer izango den zalantzarekin bakoitza bere burutazioetan naufrago ibili ginen. Berau aztertzeko eskola eguna izan zen aurreko astekoa, azterketaren aurreneko mokadua baino ez zen izan, dena eta ez dena argitu gabe bueltatu ginelako etxera, indar zentrifugo eta zentripetuak aktibo gure buruetan. Kultur ekosistemak eta kokapenerako gakoak mahai-gaineratzean hasi zen ikaskideon parte hartzea, talde hiztunaren adibide jardun anitza. Euskal kulturaren definizioaren helmugara iritsi aurretik, masa kultura, herri kultura eta kontrakulturaren bidesariak ordaindu behar izan genituen.

Azken asteetan hirugarren aldiz aipatu den Josu Amezagaren *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak* doktorego tesitik ekarri zizkigun helduleku batzuk Iñakik. Gure ingurutik askoz harago joanda, Alemaniara adibidez, Herderrek maila berean jartzen ditu herri xehearen kultura eta goi kultura, nazio beraren barnean topatu daitezkeenak biak. «Beraz, euskal kulturak bietatik izan dezake? R. M. Azkueren sei operak herri kultura edo goi kulturan kokatzen ditugu?». Azken lerrotik, irudi eta audioak grabatzeaz arduratzen den Kepak hartu zuen hitza. Ordenagailu, bideokamera eta entzungailuen babesean egoten den ikaskidearen estreinaldia txalotu egin zuen gela osoak, azken lerrotik honako hauek entzutean; «Gorka Bereziartuak otsaileko *Argia*-n hauxe dio: zertan desberdintzen dira kultura herrikoia eta kultura elitista? Ekoizpen kulturala prozesu industrial bihurtu zenetik, herriarena zen kultura eta eliteena, biak fenomeno berri batek irentsi zituen, masa kulturak. Hautaketaren arrazoia ez da ekonomikoa, publikoaren jakin-mina piztea bihurtu da arazo, beraz, heziketan dago arazoa, egun».

Herderren arabera, herri xehearen kulturaren aurkitzailetzat kontsideratua, hizkuntza da herri baten arima eta berak biltzen du izate oso bat. Hemen aipatu liteke Beñat Sarasolaren *Euscool manifestua*, benetako *hipster*-a izateko gidan euskararen zentraltasunaren alde egiten baitu. Kulturaren semiotikan Lotman errusiarraren izena aipatzen digu Iñakik, hizkuntza erdigunean kokatzen duen beste autoreetako bat, euskal kultura euskarari darion kultura definizioa defendatu lukeenetako bat, gelako naufrago askok bezala.

2012-12-26

Maiteminaz

Jon Artano Izeta

Arkakusoak zeuden. Seguru asko, aurreko konpainia immunizatuta zegoen, baina odol berria iristean, gogotik ziztatu gintuzten. Jatetxeko hustubidea kamerinotik pasatzen zen, eta etenik gabeko txiza jarioa zuen berogailuaren gainean. Haizea zebilen eraikin zahar hartan. Oihaltegi ilun altuan ulu ahula entzuten zen, kondenatutako demonioena bailitzan. Zorua altxa, eta karbono dioxidoz pozoindutako ehunka arratoi azaldu ziren. Bizirik zeudenak sekulakoak ziren, eta maite zuten aktuatzea. Erasotik ihesi, makina-buruaren katu guria ezkutatu egin zen.

Ez dut nahi nostalgiak eraman nazan, baina niretzat hura paradisua zen. Bat-batean maitemindu nintzen antzokiaz». Ingmar Bergman, Helsingborgeko antzokiko ardura eman ziotenekoaz. Eragozpen denak baino gehiago balio zion antzerkia egin ahal izateak.

Maitemina eta prekarietatea endemikoak dira antzokietan. Beti krisian. Urteko azkenekoan Ramon Agirrerekin solasaldia izan genuen San Telmo museoan. Eta hara: «Nik pasioz bizi dut, arazoak arazo. Azken 20 urteotan antzerkigintzak gizartean duen pisua asko arindu da. Akaso profesional hobeak daude, baina produkzioa eta bolumena, oro har, galdu egin da. Eta azken urteak izan dira txarrenak». Irudipenetatik jardun zen, «ikerketarik ez baitugu».

Formazioaz galdetu zioten. Eta hark erantzun ari direla antzerkia hezkuntzako curriculumean sartzeko lanean, EHAZE horretarako ere sortu dela. Baina «txikiak» direla eta ezin dutela denera iritsi. Zurriola antzerki eskola eta Bertsozale Elkartea famatu zituen, eredutik ikasi beharra aipatuz. «Ez zait iruditzen antzerkizaletasuna pizten zaila denik; ez ote den, adibidez, bertsozaletasuna piztea baino errazagoa, naturalagoa».

Administrazioez-eta galdetuta, «sekula ez dut antzerkiaren alde egin duen agintaririk ezagutu. Ezta zinearen alde ere». ETBz, «antzerkia etsaitzat hartu duela, utzikeriaz eta prepotentziaz tratatuz». Eta erantsi: «ETBri interesatzen al zaio euskal kultura?». Eta, potoloagoa, «ez dakit oso kulturzaleak garen herri gisara...».

Agirreren azken hitzak: «Maite dudalako segituko dut antzerkian beti. Bi ikusle baditut ere». Justu bi ikuslerentzat ari da aktuatzen azkenaldian Ander Lipus, oholtzara igotzen den bakoitzean. Hara zer zioen *Argia*-n: «Publikoarekin ematen diren aldaketa emozionalek edo bizipozak mantentzen naute piztuen. Agian horrek salbatzen nau eta horregatik jarraitzen dut. Berriro maitemindu nahi dut egiten dudanarekin, baina zaila ikusten dut».

Pasioaz eta maiteminaz ez ziguten orain arte hitz egin EKTn. Beharrezkoak bai, baina nahikoa al dira? Gainera denek aditzen dituzte gustura enamoratuaren kontuak eta komeriak. Baina berak bakarrik daki maiteminak damaion bihozminaz.

2013-01-15

Musikaren esperientzia partekatua

Nagore Amondarain

Josu Zabalak ez omen zuen oso argi zertara joan behar zuen unibertsitatera, ez bazen euskal musikaren heriotza-akta jasotzera, berak egungo euskal musikaren egoera oso beltz ikusten baitu. Euskal musikaren bilakaerari buruz berba egitera zetorrela, euskaraz egiten den musikari buruz berba egitera, definiziotik hasi zen aurrena.

80ko hamarkadarekin alderatuz, egun, orduan baino musika gehiago kontsumitzen dela esateak ez du Zabala lasaitzen, kontsumitzeko modu berriek ekarri baitute musikaren beherakada hiltzailea. Beraien garaian, musika esperientzia bat bihurtzen baitzen, esperientzia kolektiboa; egungoa, aldiz, indibiduala da. Musikaren espektro soziala ere inoiz baino txikiagoa da, efektu sozial gutxikoa. Horri egozten dio azken hamar urteetan ia abesti klasikorik ez sortzea; lau edo bost izan daitezkeen galdetzen dio bere buruari. «Gure garaian kantu klasiko uholdea zegoen. Gizarte aktibo bat behar da klasikoak sortzeko». Emozio kolektiboek sortzen dituzte abesti klasikoak, horiek dira gogoratzen direnak, betikotzen direnak; egun oso zaila da ikustea abesti batekin emozionatzen den jende talde handi bat, kontzertuetara joatea ia ahaztu den garaiotan, gainera. «Musikaren esperientzia partekatua» da behar dena.

Testuari begira honako hau dio, egungo musikari gazteak kultuagoak direla, intelektualizatu egin dela euskal musika, poesiaren erabilera oso ugaria dela gurean, beste kulturetan gertatzen ez dena. Ez omen dela oso normala, proportzionalki hainbeste poeta musikatzea gure herri txikian. Beraiek ere Itxaro Borda musikatu zutela baina ez haren liburuak irakurrita, hark postaz bidalita zela prozesua. Edo Jon Mirande musikatzera ere iritsi zirela baina irakurle fin batek hala eskatuta.

Beraiek egin nahi zuten estiloa euskaraz egiten ez zela jabetuta zeuden; beraz, bazekiten lehenak izatearen xarma izango zutela. «Euskaraz abestea gauza naturala zela transmititu nahi genuen, Gasteiz batean gainera! Oso gutxik ulertzen gintuen; Gasteizen entzuleen % 99 erdaldunak ziren, baina euskarak prestigioa zuen».

Musikaz idatzi eta esaten zen garaiaz hitz egin digu, aurretik aipaturiko espektro sozialaz: *Bat, bi, hiru, Muskaria, El Tubo, Katukale, Entzun*… «Baina hau dena desagertu da, oso gutxi idazten da euskal musikaren inguruan», lehenago zirkuitu betea baitzen musikarena, promotore, entzule, kontzertu, areto, diskoetxe… ugariduna. Musikarien topaleku eta diskoetxeen alternatiba interesgarri moduan dio euskal produkzioaren %80 Bidehuts, Taupaka, Musikherria eta Bonberenearen moduko kolektiboetan dagoela. «Musikaren esperientzia partekatua» ideiaren erakusgarri eta altruismoz indartua..

2013-01-22

Lanbroak bezala

Jon Artano Izeta

Finaletako ohiko solemnitatez hasi da aurkezlea bertsolariak presentatzen: 'Hainbat biderrez Bizkaiko txapeldun izan den Igor Elortza! Hainbatetan Euskal Herriko txapelketan finalista izan den Unai Iturriaga!'... eta tipo horretara, harik eta esaten duen arte: '...eta hemen dugu, beti bezala txukun-txukun, Oihane Enbeita!'». Algara batean jarri gaitu. Eta hurrenarekin segi: «Badoaz Lizardi sariketako finalistak banan-banan jende artetik oholtzarantz bertsozaleen animo oihu gartsuak adituz: 'Jo ta egurra! Ez barkatu!', eta gisakoak. Gizonezkoa ez den bakarra pasatu denean, Alaitz Sarasola, xuxurlatu diote: '... zu lasai, ez da ezer pasatzen'».

Pasadizo mundialekin ilustratu zizkigun teoriak Uxue Alberdik. Maialen Lujanbiok ere hitz egin zuen haren ahotik, eta Estitxu eta Ixiar Eizagirrek, eta Ainhoa Agirreazaldegik, eta gehiagok. Gogoeta kolektiboak direlako *Bertsolaritza, begirada feminista bat* hitzaldikoak. «Bertsotan ari diren emakumeen proportzio handi samarrak du kontzientzia feminista, gure jarduna bera nahikoa agresiboa delako, ez konturatzeko». Jardunagatik, beraz, eta 2003ko Gabonen atarian Askizun elkarrekin egindako asteburu-pasa bategatik ere bai. Zertarako elkartu behar zuten oso ondo jakin gabe bildu ziren han. Eta konturatu ziren denek zutela antzeko sentsazioa: ez zekitela bertsolari izaten, ez zekitelako gizonezkoak imitatzen. Bertsolari osoak izateko zerbait falta balitzaie bezala. *Besamotzarena* jarri zioten sentipen horri. Jabetu ziren bizipen pila bat konpartitzen zituztela eta bazela «zerbait» sisteman; ez zela ordura arte uste zen bezala norbere izaeraren kontua. Geroztik, osmosiz, emeki ari da zabaltzen beraien ikuspegia. Lanbroak bustitzen duen moduan, Lujanbiok behin esan bezala.

«Nolakoa zatekeen bertsolaritza emakumeek garatu izan balute?». Hutsuneak sumatzetik aukerak ikustera pasatu ziren galdera horrekin. Kontzientzia hartze hori sorkuntzarako «oparia» dela kontatu zigun Alberdik. «Begirada propioa landu dezakegulako, berria. Gure adineko mutil asko galduago ikusten ditut, zer berrikuntza eskaini asmatu ezinda». Erronka *emakumera batua* sortzea dute orain, «emakumeok publiko orokorrarekin konpartituko dugun kodea». Emakumeen ekarpenaz, berriz, hauxe esan zigun: «Jone Miren Hernandez antropologoak dio bertsolariaren tresna tradizionalei —arrazoia, oratoria eta komunikazioa— emozioa, barne bizitza eta enpatia gaineratu dizkiela Lujanbiok».

Interesa duenak San Valentin egunez du segida, Villabonan, Karmen Larrañagarekin, 90eko hamarkadan bertsolaritza feminismoaren ikuspegitik aztertu zuen aitzindariarekin. Bertsozale Elkarteko genero taldeak prestatutako *Umorez* jardunaldiak irekiko ditu. Lanbroak hedatzen jarrai dezan, geure baitako bazter ez hain miresgarriak ikusarazteko.

Arbelari begira

2013-01-29

Kultura, guda eremua

Nagore Amondarain

Donostiako auzo eta herriei zuzenduriko Donostia Kulturan lanean dihardu duela urte eta erdi Amaia Almirallek. Testuinguruari erreparatuz, zera dio, «zorionez, Donostian ez dago makroenzefalitisik» beste hiriburuetan gertatu daitekeen moduan, Gipuzkoako %26 biltzen duelako Donostiak eta hiriburutik at badirelako eskualde eta herri handi eta biziak. Horrek, bestetik, hiriburuari merezimenduak ere zailago iristea dakar.

Azalpen kritikoarekin osatu du hitzaldia Amaiak. Zer den baino gehiago, zer ez den Donostia Kultura esanez hasi da. Donostia Kultura ez baita «kultura Donostian». Laurogeiko hamarkadan, deskontzentrazio garaian, leku guztietan patronatu eta erakunde piloa sortzen hasi ziren. Sakabanaketa horretatik, metaketa garaira igaro zen sistema, eta, zelan ez, kultur sistema ere orduantxe hasi zen Donostia Kultura delakoan dena metatzen; sakabanaketa zein metatzea Odon Elorzaren garaian ematen ziren bi eredu dira, biak ala biak eredu ekonomizista batetik abiatuta. «Rissotoa zer den azaltzea bezalakoa da Donostia Kultura azaltzea; ez da paella bat, ez da arroz saldatsua, ez da arroz zuria… Badirudi azkenean amaitzen dela ulertzen ez?». Baina ez da erraza, osagai asko eta pisu desberdinekoak baititu.

Tabakalera, Zinemaldia eta Kursaalak SA izaera dute. Azken horrek adibidez, SA bat eta fundazio bat ditu barruan, fundazioa litzateke kultura ekitaldien programatzaile, eta bertako *Herri Musika* izena duen programa litzateke Donostia Kulturatik bideratzen dena soilik, *macroholding* bat bistan denez. Musika Hamabostaldiak ere izaera propioa du. Eta iritsi da entzule askok espero zuten gaira, 2016ra, hor egon baita galderarik gehien, baina hori ere ez dela Donostia Kultura, edo konpartitua dela aurreko beste egitasmoen antzera, Jaurlaritzak, udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dutelako egitasmoa. Tabakalera bezala, hau ere guda eremu bat izan omen da azken urteetan. Oteizak esaten zuen moduan, kultura guda eremua delako.

Donostia Kultura 21 kultur ekipamenduk osatzen dute, lau auzotan banatuak. Bi SA biltzen ditu barnean, Victoria Eugenia eta San Telmo. Eta DKmusika, DKantzerkia, DKzinema eta DK festak arloak kudeatzen ditu. Ia-ia ezer ez. Horixe enpresa erakunde publikoa den Donostia Kulturaren osaketa. «Ia dena zenbakitan neurtzeko ohitura izan duen erakundea da gurea», egiten du hasperen Almirallek. Azaltzeko zaila den egitura erraldoitik ibilbidea, beraz.

Eta hau gertatzen da, hainbeste urtez kultura kapitalizatzeko gogo itsuz ibili ostean, instituzionalizazio erabatekoa, sormen espazioak antzu bihurtzerainokoa.

2013-02-05

Hitzen balioaz

Jon Artano Izeta

Hitzen balioaz galdetu nahi dizut. Zuk ematen diezunaz eta legebiltzarrean dutenaz. Nola bizi duzu hori?

—Txarto.

Horrelaxe hasi zen onena, amaieran. Saskibaloian eta nobela beltzetan bezala, lautik hirutan, azken zatia izaten da *emoxionanteena* ikasgelan. Bi ordu elkarrekin pasata konfiantza sortzen baita. Aspaldi adostu zuten literatur sistemaz hitz egitera etorriko zela. Bitartean, politikako lehen lerrora aurreratu da Laura Mintegi. Literaturaz hitz egin zigun. Bai... baina ez. Ez literaturaz bakarrik. Astero gertatu ohi denez.

«Maite ditut hitzak. Hitzek egiten gaituzte pertsona. Han, hitzak desbirtuatu, eta arma moduan erabiltzen dira. Biluzik eta deformaturik geratzen dira. Mingarria da, konponbiderako garrantzitsua, gauzak nola esaten diren baita sarritan, zer esaten den baino. Hitzekin lan egitera ohituta dagoenarentzat ñabarduretan, zehaztasunetan, koloreetan dago balioa. Eta han, bi hitzen artean aukerarazi nahi dizute, zuri edo beltz, eta bakoitzak itzelezko zama ideologikoa, dauka. Hor, gotortu eta murailak sortzen dira. Kondena hitzarekin adibidez».

Lehenagotik, kulturaren marjinalitateaz jardun zuen. Lehendakariak atzerrirako bidaietara enpresariak eramaten dituela, sekula ez kultur arloko jendea. Hor idazleak hitz egingo zuen, noski, fikziozkoa baitirudi —edo politika fikziozkoa—kultur arloko ordezkarien segizioa irudikatzea lehendakariarekin bidaia ofizialean.

Kontuak kontu, literaturaren osasunaz hitz egin zuen gehiena. Gaur baino gehiago eta hobeto ez dela inoiz idatzi. Lehen aldiz lau belaunaldi batera idazten ari direla. Eta estreinakoz erreferenteak ditugula, eta «aita hil dezakegula» horrenbestez. Idazle baten obraren bilakaera ikus dezakegula aurrenekoz. «Canoren garapena, adibidez: Lubaki Bandako lan nerabeetatik *Twist* den marabilla horretara».

Idazletzak egiarekin behar duen konpromisoaz ere mintzatu zen. «Barnetik ateratzen zaionari kasu egin eta arriskatu beharraz» lanarekin ikasteko. Eta beste hiru gremioren garrantziaz ere bai. Irakasleez: «irakurleen %60, edo gehiago, irakurle gatibuak dira, eskolan aginduta leitzen dutenez gero. Betiko hamar liburuekin dabiltza bueltaka». Kazetariez: «Eskatu behar zaien gutxienekoa elkarrizketatuaren liburua irakurtzea da. Eta ez. Kontrazala leitzen dute, eta egilearen izena googleatu». Eta kritikariez, erreseinagileak eta lan akademikoak egiten dituztenak ditugula, eta tartekoak falta direla.

Kritika erasaten duten faktoreen artean gutxi izatearena, «harreman pertsonalek eragin handia dute», aipatu zuen. Eta ideologiarena. Hortik sortu direlako «kaperak, bakoitza bere zalditeriarekin». Kritika bere garaiaren alaba dela, jendarteko tentsioen ispilu. Literaturgintzan politikan baino bi urte lehenago izan zutela Lizarra-Garazi propioa. «1996an sumatzen zen zetorrena. Idazleok gerra aizkora lurperatu eta bakea egin genuen. Eta kritika ere aldatu zen, ordura arte lepo-moztera egiten baitzuen».

2013-02-12

Ongi etorri, Philippe!

Jon Artano Izeta

Iritsi berriarentzat hasierako harrerak duen garrantziaz hitz egin digute, besteak beste, Topaguneko Mikel Ozaitak, Itsaso Lekuonak eta Ainara Santakiteriak. *Onki Xin* plana jarri dute martxan Pasaian, Lasarten eta Zumaian. Erroldatzen direnei harrera gida bat ematen diete, Euskal Herriko oinarrizko informazioa duena, euskararen garrantzia nabarmendu, eta hizkuntza ikasteko moduak azaltzen.

Badute beste proiektu bat handiagoa: *Auzoko.* Euskararekin jolastuz jatorri desberdineko herritarrek elkar ezagutzea du helburu. Hauxe da sistema: lagun taldeak sortzen dituzte, *auzokide* eta *auzotar*-ak bilduz. *Auzokide*-ak erdaldunak dira, etorritakoak zein bertakoak; *Auzotar*-ak euskaraz bizi direnak, bertakoak zein etorritakoak. Behin diosalak eta komunikaziorako makulu batzuk ikasita, kalera luzatzen dute pausoa, herriko eragileekin igurtzi bila. Orion elkartu den kuadrillaren irudiak erakutsi dizkigute. Eta pasadizo ederrak kontatu ere bai: elkarrekiko mesfidantza goxatzea lortu omen dute han saharararrek eta marokoarrek.

2008an abiatu zuten *Auzoko*, «berandu samar». Kanpotik jende gehiena lehenago heldu zelako, aparraldi ekonomikoaz, eta ordutik agintariak laguntza publikoetan egiten ari diren sakailak egitasmoa trabatzen duelako.

Lingolang ere sortu dute, ikastetxeetarako. Eta beste ekarpena *Hizkimizki* da. Euskarazko esaldi erabilgarriak Euskal Herrian hitz egiten diren beste 43 hizkuntzatara itzultzen dituzten oinarrizko hiztegitxoak. Ideia sinplea. Ideia bikaina.

Baina eskolaren hondarrean zalantzak erne dira: premia berari erantzunez, Topagunekoez gain, beste hainbat egitasmo izateak ez dirudi kalterako denik; koordinazio eza kezkagarriagoa da. Gehiago: immigranteei harrera naturala jatorri berekoen elkarteek-eta egin ohi dietela kontuan izanda, nola ehundu talde horiekiko sareak? Eta beste kezka bat ere sumatu da: Topaguneari ote dagokion gai honetan bide urratzea.

Izenburura itzuliz: «Ongi etorri, Philippe!», «*¡Bienvenido!*» edo «*Bienvenu, monsieur Montanier!»,* nola egin ote zioten lehenbiziko hitza Realeko entrenatzaileari, Donostiara heldu zenean? Nola egiten diogu etxepera aldatu zaigun bizilagunari? Nola, kalean CDak eskaintzen dizkigunari? Horretan aritzen da Omar Saar. Eta Altsasura iritsi ahala hasi zen euskara eskolekin. Agudo utzi zuen. «Oso zaila egiten zaio euskara ikastea, gero kalean inork egiten ez badio». Ainara Gorostitzuk *Aldamenekoa*-n bildutako hamaika istorietako bat da Omarrena. Etorri berriari euskaraz eginda adierazten diogu ez dugula *a priori* erabaki euskara ez dakienik. Are gehiago, aspaldi ez

dela Lorea Agirrek *Argia*-n zioen bezala: «Euskaraz zuzenduta gonbidapena luzatzen ari natzaio, hizkuntz komunitateko kide nahi dudalako».

2013-02-19

Manexak gara

Nagore Amondarain

Biarnoko Oloroeko karrika guztiak ezagunak ditu Zuberoako gazte batek, gerta daitekeena da Baionakoetan galduta ibiltzea. Zuberoatik Aretxabaletaraino, dagoeneko, ezagunak zaizkien errepideetatik datoz Dominika Agergarai eta Artzen Letona, baina egoeraren berri ematean eta Zuberoako errealitatea orokortzean bestelakoa da mezua; probintzien arteko harremanak indartzearen behar urgentea dagoela.

Dinamika anitzen lurraldea da 13.000 biztanledun Zuberoa, maskaradetan dagoena, pastoraletan dago, ikastolan eragiten, Xiberoko Bozaren aldeko diru bilketan edo Kantu Txapelketako antolaketan.

Kontraesan batean bizi omen dira egun pastoralak, horietan parte hartzeko ez da euskararik ezagutu behar, ez baitago inprobisaziorik, buruz ikastea nahikoa baita. Aste honetako *Argia*-k Zuberoako beste ahots bat ekarri digu, eta Ttittika Rekalten iritziz, «pastoralak iruzur kulturala dira kasik». Herrien arteko lehia ere sumatzen omen da egun, Dominikaren iritziz, zeinek antolaketa onena izan, adibidez. Beste arrangura bat, behar diren kideen bikoitzak nahi izaten duela horietan parte hartu.

Maskaradetan, berriz, ez da holako nahikunderik ikusten. Euskara zinez menperatu behar da, inprobisazioz asko baitu, adibidez, arrapostu eman behar baita ikusleengatik zerbait entzunez gero. Urtero herri bateko gazteek antolatzea, beraz, lorpen bat da. Iazko maskarada ikastoletako ikasle ohiek antolatu zuten, herri bakar bateko gazteek antolatu ordez, urte horretan eman behar zen hutsunea ekidin eta maskaraden jarraikortasuna bermatzeko. Baina, hala ere, izan zen ahots kritikorik eta *sasi maskarada*-tzat izendatu zuten iazkoa.

Inoizkorik isiltasun sakonena izan da eskola egunean, zubererari ulertzeko belarri guztiak jarri behar zaizkiolako. Ikastoletan zubereraren transmisioa ikas-materialen eta irakasleen ahaleginaren bidez ari dira bermatzen eta entzule guztiok aldi berean egin dugu «ooh…». Lehenengo kolpean zera datorkit burura, bizkaieraz irakastea atzerakoia zaigu eta zubereraz irakastea pozgarri? Bigarren kolpean barneratu dut bizkaieraren transmisioa etxetik bermatu ahal den moduan, Zuberoan ez dela horrelakorik. Bestetik, kolegioan batueraz aritzeko guztiz gaituak diren moduan, bizkaitarrek nahiko lan unibertsitatean ere batuan aritzeko. Iparraldean ez baita euskalkia vs batua amildegia hemen bestekoa.

Kantua, ikastolak, zinema… guztia ari da izaten lagungarri zubereraren iraupenerako. Bitxikeria moduan, *Xora* zubereraz egin den aurreko filmaren estreinaldian Mauleko

zineman *film espagnol* moduan aurkeztu zuten, nonbait banaketa hegoaldetik bideratu delako.

Eginahalak eginda ere, manexak izango gara Zuberoatik kanpoko oro. Probintzien arteko harremanak sakontze horretan, laguntza ematen eta partekatzen asmatu beharko dugu hegoaldekook, baina paternalismotan erori gabe. Prefosta!

2013-02-26

Arabako berogailuak

Nagore Amondarain

Arabako berogailuen testigantza emateko iragarrita genuen izena Oihane Perea zen, baina gelara sartuaz batera, Manex Agirreren laguntzarekin jardungo zuela jabetu ginen. Arabako azken bertso txapelketako txapeldunarekin saioa emateak argi uzten zuen Perea eta Agirre *tandem*-a bertsoei buruz berbetan zetorrela. Esan daiteke euskalgintzak duen zutaberik sendoena dela bertsolaritza Araban, motibazioaren erreprodukzioa egiten duena. Gerora norabidea beste bat izan arren, gazte askoren iragan beharreko ate bat. Abornikanon kokatu zen Abel Enbeita izan zen orduko gazte askoren akuilu, eta habia hartatik sortu zen Arabako bertsolaritza, sorkuntza kolektiboa. Eta handik eratorrita sortu zen Lautadako bertso eskola ere, duela hamar urte. «Gaur ikasi, bihar irakatsi» da Lautadakoen nahia, eta horretarako, gazte-lokalen antzera, bertso-lokala dute Agurainen. Herriko kultur bizitza piztu du bertso eskolak, bizipen atseginetatik eta taldearen identifikaziotik presentzia publikoa handitzea lortu du euskarak. Egun, Lautadako gazteei *los lari* deitzen omen diete, bertsolari, trikitilari… dena antolatzeko gai direnak. Lautadan, bertebrazio soziala euskararen bitartez gertatzen ari da. Esan dutenez, bertsoak eremu erdaldunean zera sorrarazten omen die gazteei: «Konturatu gabe, euskaraz ari direla ahaztu egiten zaie gazteei bertso giroan daudenean».

Baina ezagutzen ez duenarentzat, Arabako bertsolaritzak ez du zerikusirik beste lurraldeekin. Banakako lehiara pasatzea kostatu egiten zaie bertako bertsolari askori. Inflexio puntua 2010eko Kuadrilla Arteko Txapelketa izan zen, bat-batekoa eta idatzizkoa, Araba guztia mugitu zuen txapelketa, sorkuntza aktibatu zuena, kolektiboa. Saioetan ez zen entzule hutsik, denak ziren parte-hartzaile, «denek zuten zereginen bat, mahai-jartzaileak ere izaten ziren, gai-jartzaileen moduan». Presio gabe bizi dute bertsolaritza Araban. Hortik adibidez, Hala Bedi irratian duten *Bertxoko* saioa, askok umore saio legez dutena. «Euskadi Irratiko *Hitza jolas* saioak darabilen material berdina darabilgu, baina oso emaitza desberdina da gurea», bertsozale ez direnak ere jarraitzaile dituen saioa. Bestetik, zirkuitu berdinean topo egiten duten bi komunitate daude Gasteizen, hip-hopa eta bertsoena. Eta Hala Bedi eta gaztetxearen urteurrenen harira, 2008an, hurbilketa natural bat egon zen, gaur arte jarraitu duena, «bertso afari batera hamar gazte badoaz, bertso hip-hop saiora ehun». Eta hau gertatzeko ez zuen euskara teknikari batek etorri behar izan, antolatu eta asmakizun legez patentatu.

2013-03-05

Gorriak

Jon Artano Izeta

Duela bi urte inauguratu zuten Euskal Herriko museo zaharrenari erantsitako oskol berria. San Telmo museoaren metamorfosia ez da azal mudatze soila izan, museoaren kontzeptua bera berrikusi dute. Gaur egungo kontuak lantzeko lekua badela frogatu nahi dute, ez zaharkinak gordetzeko zurkulua. Horregatik erabaki zuten estreinako erakusketaren gaia *Euskara!* izatea. Eta enkargua Joxean Muñozi eman zioten.

Ernamuinean zeuden asmoez, talde lanaz, ideia lapurretaz, orekak gorde beharraz, azalean geratzeko arriskuaz, neurrian sartzeko zailtasunaz... *Badu Bada*. *Euskara mundu eleanitzean* erakusketaren sortze prozesuaz aritu zaigu Joxean Muñoz. Seduzitzen daki. Benetako pasioa igarri zaio gizonari, eta hizlari aparta da, gainera.

Erakusketaren publikoaz hitz egiteko zirkulu bat erakutsi digu. Muinean gorria da, eta hor kokatu ditu euskaldun kontzienteak, «erakusketaren xede nagusia». Kanpoaldean hiru eraztun ditu gorriuneak: euskaldun pasiboena bat, inguru euskalduna duten erdaldunena hurrena, eta *a priori* interesik ez duten erdaldun petoena azkena. Guztiengana iritsi nahi zuen erakusketak.

Hiru hilabetean 17.531 lagun izan dira *Badu Bada* ikusten, gehienak *gorriak*. Estatistikarik ez duen arren, Muñozek uste du apenas erakarri dutela erdaldunik. Eta horixe bere arrangura handiena: erdaldunak erakartzeko «komunikazio espezifikoan» behar beste saiatu ez izana. Hasieratik helburu bakarra euskaldun kontzienteak izan balira erakusketa «oso diferentea» zatekeela nabarmendu du Muñozek: «Askoz mingotsagoa. Erakusketak duen puntu atsegin goxo hori erdaldunak ez uxatzeko eman baitiogu; nekez erakarriko duzu inor diskurtso agonikoarekin, 'etor zaitez hona, hemen asko sufritzen da-eta' esanaz. Nekez erdaldunak eta, beldur naiz, nekez gazteak». Medio eta iritzi sortzaile erdaldunekin elkarlana behar adina sustatu ez izanaz damu da. «Erdaldun jendea erakartzeko ahalegin oso berezia egin behar da. Eroso bizi dira kanpo, eta tentatu egin behar ditugu, modu sistematikoagoan».

Hor geratu da ikasle hau kateatuta. Erdaldunak erakartzeko, Gemma Niergak edo Iñaki Gabilondok —bi izen horiek aipatu zituen Muñozek— propaganda ona egin ezean alferrik ari al gara? Ez al dago beste estrategiarik? Eta erakarri al daitezke publiko mota guztiak produktu bakarra diseinatuz?

Eskolaren azken tartean, Jaurlaritzako Kultura sailburuorde gisara dituen erronkez galdetu diote. Lanean daraman tartean egoera «uste baino gogorragoa» dela jabetu da Muñoz. Egun hartan bertan Gatzagaetxebarria Ekonomia sailburuak hizkuntz politikan eta kulturan mozketa «handiagoa» iragarri zuen, «lehentasunezko arloei» gutxiago

eragiteko. Lehen ez dugu asko falta gorririk geratzeko eta...

Badu Bada-n, Europako hizkuntzak irudikatuz, sabaitik zintzilik koloretako 68 globo zeuden. Euskararena gorria, hor ere. Hari begira Maialen Lujanbiok kantatu zuen: «Bizigrina edo larritasuna / horixe nire zalantza».

2013-03-12

Kitzikatuz

Nagore Amondarain

Mattin Irigoien aktorea. / BERRIA

Iparraldean antzerki amateurra da bertarako antzerkiaren bizkarrezurra, eta Mattin Irigoien dugu gorputza ematen dioten izenetako bat Amikuze aldean. Nafarroa Behereko iparraldetik datorkigu Mattin, artoaren eremua eta ardiaren eremuak bereizten dituen definizioarekin; «artoaren eremua, iparralderen dagoena, modernitatearekin loturikoa dugu, frantsesa, Biarnok jandakoa ia; eta ardiaren eremua, tradizioa, euskalduna». Galtzen ari den mundua geureganatu eta plazara eraman beharraz aritu da, euskarak toki publikoa izan dezan. Hegoaldean erdaratik ekarritako antzezlanak gehiago diren honetan, iparraldean antzerki amateurretik mundu bat irekitzen du euskarak. 1982an hasi zen antzerkian Irigoien, eta laborantzako jardunarekin eta ikastolen aldeko mugimenduarekin uztartu du zeregina. 1997tik 2001era, Amikuzeko ikastolaren aldeko borrokan sartu zen, «ikastola berri bat ukaiteko borroka bat eraman dugu, ez dugu soilik gure menditik oihu egin, besteen mendira joan ginen, jende horrekin igurtzitzea lortu genuen». 2004an, Kitzikazank antzerki taldea sortu zuen, eta bertako gazteekin lanean dihardu egun ere. «Ikasleek ez zekiten deus beraien gurasoen euskal munduaz… ikastolatik kanpo ez baitzen deus, ez zen beste bizirik euskaraz». Egun, adibidez, ikastola eta Kitzikazank antzerki taldeaz gain, badute gaztetxea, badute gau eskola, joaldun elkartea… «Amikuzeko euskalgintza koordinatzen hasi da, ez baikinen gurutzatzen; beraz, belaunaldiak ere gurutzatu dira». Libertimendu eta tobera egile ere bada Irigoien, ikuspegi kritiko batetik ondutakoak betiere, trufa eta ziria bietan osagai. Zuberoan maskaradak egiten diren moduan, Nafarroa Beherean libertimenduak egiten dituzte inauteri sasoia iristean, Antton Lukuk berrinterpretatu duen formatua, urte luzez galduta egon ondoren.

Misiolarien lanaz mintzo da, Elizak euskaratik erlijiora bihurtzeko ahalegina egin zuen «euskaldun fededun» horrekin, euskaratik konbertitu, alegia. Baina misioetan ibiltze hori beste alor batera ere eraman du, «misio lanetan ibiltze horrek dakar ez lantzea gure artekoa», marxistak biharkoari begira omen daude, bere esanetan «borroka armatuak ere bihar elkar maitatzea desio du, egun gatazkan biziz. Hor dago paradigma aldaketa, niretzat, gaur eginen dugu biharkoa». Arrangura gehiegi unibertsitateko agertokitik.

2013-03-19

Ainguradun ametsak

Jon Artano Izeta

Atorra koadroduna, aurpegiko azala pixka bat eroria, eta euskaldun itxura petoa. Han egoten da bera. Bizitza osoa eman dut hara joanez egunkaria erostera, 500 aldiz joango nintzen! Beti euskaraz galdetu izan diot. Eta berak beti frantsesez erantzun. Duela bi hilabete, goiz batez, zerbait luzatu zen elkarrizketa eta... lehenengo aldiz euskaraz eratzun zidan. Etxeko euskara garbian!». Pausuko *bureau de tabac*-eko agurearena kontatu digu lehenbizi Amets Arzallusek. «Zer gertatzen da pertsona baten barruan hiztun jarrera hori hartzeko? Zirena ez beste zerbait bihurtu diren euskaldun horietako bat da, beren barnera exiliatutako horietako bat».

Hendaian euskarak bizi duen egoeraz mintzatzera heldu zaigu. Horrelakoetan ezkor azaldu ohi da Arzallus. Ez berez pesimista delako, «egoeraren larritasunaren kontzientzia» duelako baizik. Ezkortasun horren erroak azaltzeko Hendaiako lau argazki erakutsi dizkigu, lau hiztun-jarrera harrapatuz.

Kioskoko aitonaren potreta egin ostean, Les Eglantins futbol taldekoen galtza motzak atera ditu estanpatutako ikurrina erakutsiz. Talde horretan jokatzeak inguru frantsesarekin lagunarteko harremana eman dio: «Futbolari esker gurea baino errealagoa den Hendaia ezagutzen dut, bestela, kristalezko bola batean biziko nintzateke». Taldekideak frantsesak dira Arzallusentzat; eurak, ordea, «frantses eta euskaldun sentitzen dira, inongo kontraesanik gabe». Frantsesak damaie unibertsaltasuna. *Basque* izateak, ikurrinak, «marka komertzial bat bezala» bilatzen duten singularitatea. Horixe omen biziera zabalduena.

Euskal jende engaiatuaren artean egindakoa da hirugarren argazkia. Manifestazio bateko lehen lerroetan bi politikari abertzale, euskaraz badakitenak, frantsesez mintzo. Azkenik, bere kuadrillaz solastatu da. «Bost gara. Bostetik hiruk askotan frantsesez egiten dute. 1983an Hendaian jaiotakoen artean euskaraz egin dezakeen kuadrilla bakarren errealitatea da hori, unibertsitaterainoko ikasketak euskaraz egin ditugun bakarrak baikara».

Galera «atzeraezina» da hizkuntzaren kalitatean eta hizkuntzarekiko atxikimenduan. Horregatik, gogoeta egitea nahi du Arzallusek. Eta gogoeten neurriko ametsak egitea, «lurreraino aingurarik ez badute alferrik direlako». Eta ardura hartzea amets berriei helduz gorantz abiatzeko. Lehenbizi euskal hiztunen komunitatea trinkotzea, horretan ari dira Hendaian Mugati taldean, «gutxi izan eta garenaren neurrian ere ez baikara ikusgarri». Administrazioarekin interlokuzioa egiteko gidaritza sinbolikoa gizarte ekimenak hartzea ere amestu omen dezake, «zabaltzen ari diren jarrera eskale samarrak utziz. Autoerantzukizunez libreago eta emankorrago garelako». Euskararen

Erakunde Publikoa aipatuz esan du «administrazioak herri ekimenaren lorpenak kudeatzeko organoak asmatu dituela, hein berean inmobilizatuz».

Funtzionatu duen adibidean inspiratuz azken ametsa kontatu digu: Hizkuntzaren Laborantza Ganbera. Euskarazko ikasketak bindatuko dituena eta hizkuntzak behar dituen dentsitate-guneak, baratzak, sortuko dituena. Hahor desafioa «bere neurriko lubakirik zabaltzen asmatu ez duen belaunaldi batentzat».

2013-03-26

Arriskuak hartzeaz

Nagore Amondarain

Ez dakit zerk eramango zuen gure ama Egunero hasten delako irakurtzera — orain datozkit galderak, egia esan—, baina nik neuk derrigortuta irakurri nuen. Gogoan dut, gainera, nola lotsatu nintzen edizio zaharra izateaz eskola-kideen artean: besteen liburu berrien usainik ez zuen nireak.

Horrela hasi du Ramon Saizarbitoriak hitzaldia: «Zerbaitek amorrua ematen badit da, norbaitek kalean harrapatzen nauenean esatea Ehun Metro ikastolan irakurri zuela; nire nobelak eskolan derrigortuta irakurri zituela esatea, alegia». Juan Luis Zabala idazlea izan genuen kazetari eta irakurle modura hitzaldia zuzentzen, Saizarbitoriari galderak eginez.

Martutenez galdegin beharra zegoen, zelan ez, hainbeste urtez ondutako lanaz. Entzuleoi, edo hobeto esan ikasleoi, zera esanez erantzun dio galderari Saizarbitoriak: «Ordu galduak irabazten ikasi beharko zenukete». Gogoratzeko borondateak egin duela bera idazle, eta pozgarria zaiola hain irakurle desberdinek errespetuz hartu izana liburua. Fede onez idatzia omen dela. Baina fede onez eginak daudela nobela txar asko ere gehitu dio Zabalak.

Hirurogeiko hamarkadan idatzitako Ez naiz jatorra artikuluaz galdetuta: «Euskarari modernotasuna ekarriko dion belaunaldi berri bat sortu behar da». Philip Rothen Human Stain (Giza orbana) liburuan gertatzen den modura, bera ere genetikoki beltz den zuri baten gisa bizi izan dela Donostian. Herritik etortzen ziren borono deituriko haien aldean, moderno izan nahia aldarrikatzen zuen bere sakoneko boronotasunean. «Gure aberria egiteko modua Avenidako tabernetan Martiniak euskaraz eskatzea zen». Normalak ez garela onartuta aldatu beharko dugu errealitatea, haren ustez helburuak betetzearekin beharrean, adierazleak betetzearekin obsesionatuta baikaude.

Txillida-Oteiza dikotomiaz hitz egin digu, eta idatzi beharko duela horri buruz noizbait, seguru dela lehenak euskara ikasteko saio sakonagoak egin zituela, eskatzen ziotena ematen zuela euskararen alde; «baina ideologikoki ez zenez ezer…». Baina Zabalak Saizarbitoria-Atxaga dikotomiaz galdegitean, ezer baino lehen esan du ez duela maite ona-gaiztoa zera hori. Berak Euskal Herrikoari eutsi diola, bertako irakurleei, kanpora begira egon gabe. «Ni ez naiz hasiko aeroplanoak hartzen Londresen hitzaldi bat emateko». Idazle gazteek arrisku hori dutela: euskara pausu gisa hartzea, mundu benetakora pasatzeko. Kirmen Uriberen kasua aipatu du. Munduari balio erantsi bat

emateko gai izan behar dugula, ez erdaratan egiten dena egiteko. «Idazleek beste arrisku batzuk hartu beharko genituzke». Gerra zibilaz idazteko gogoa duela oraindik, beraz, gatazka deitzen den honetaz ea noiz bukatuko dugun idazten galdetu du.

2013-04-16

Ez da hain fazila

Jon Artano Izeta

Bertan bizitzen jarri zenean konturatu zen ez zela hain erraza. Ez euskararen aldetik, ezta bizikidetzaren aldetik ere. Jaiotzez Frankfurtekoa izanagatik, Petra Elser-ek aspalditik ezagutzen zituen Euskal Herria eta euskaldunak, eta bere kabuz euskaldunduta iritsi zen Urnietara 2003an. Eta hala ere... zaila! Banaiz Bagara elkartea sortu zuen bere bizipenek akuilatuta. «Hemen bizi garen guztion eskubidea delako euskara ikastea, eta pentsatzen dugulako gizartean elkarrekin bizitzeko aukera berdintasuna ematen duela».

Lau urte daramatzate bereziki etorkinentzako proiektuekin. Hitz eginez, ahozkotasunetik, askorentzat samurrak ez diren gramatikazko azalpenik gabe, euskara ikasteko aukera ematen dute zortzi herritan. «Gureak ez dira eskolak. Talde irekiak dira, dohainik, eta parte hartzean oinarrituta. Proiektuak balio erantsia du sare soziala osatzen den aldetik». Oinarrizko egitura batzuk ikastea da helburua, gero kalean erabiltzeko. Batzuek egiten dute. Beste askok ez, sarritan harremana aspalditik gaztelaniaz delako euskaldunekin eta zaila delako aldaketa. Eta ez da hori ataka estuena, tribuaren berbak ikastea ez baita nahikoa: «Nahiz eta euskara jakin, ez da erraza euskal komunitatean sartzea; hizkuntzak ez digu bermatzen euskaldunak ezagutzea». Horregatik, kuadrillan joaten dira herriko ekintzetara, elkarren anparoan bakarka ausartuko ez liratekeen girotara sartuz eta bizipenak konpartituz. Euskaldunok nolakoak garen galdetu diote. Fidatzekoak garela, baina konfiantza lortzea zaila dela gurekin. Iragazgaitza da berez, nonbait, *gore-tex*-arekin obsesionatutako herria.

Elserrekin batera, Shahid Iqbal etorri da fakultatera. Pakistandarra da, eta euskalduna. Punjabera, urdua, hindua, arabiera eta ingelesa zekizkien Azkoitira etorri zenean; euskara bazenik ere ez. Bi urtean gaztelania eta euskara aldi berean ikasi ditu. Etorri harrigarria du, eta hiztegi aberatsa. «Etorkizunean lana bilatzeko oso ona izango dela pentsatuta hasi nintzen ikasten». Hahor zein izan zuen euskalduntzeko arrazoia. Askotariko motibazioak dituzte Banaiz Bagara-ko taldeetan ari direnak. Baina etorkinen artean, oro har, gutxiengoak du Iqbalen ikuspegia: 300 pakistandar inguru bizi dira Azkoitian eta bera iritsi zenean «dozena bat ari zen euskara ikasten». %4 da hori, non eta Azkoitian. Eta hori aldatu beharraz jabetuta dago Elser: «Lan munduan dugu muga. Pertsona dezentek alde egiten dute lan edo ikastaroren batera, eta horiek beti gazteleraz dira. Ikusten dute bizimodua ateratzeko gaztelera behar dutela».

Lehenengo *oilozopia* eta gero filosofia, sententziatu dit aldamenekoak.

2013-04-23

Ez izatearen ajeak

Nagore Amondarain

Esango nuke Lorea Agirrek beren beregi muntatu zuela aurkezpeneko diapositiba modu honetan: Marxen aipu bat ekarri zigun, «kulturak espazio propioa izateko eskubidea ez ezik, premia ere badu» Agiñako argazki baten gainean paratua. Oteizak Aita Donostiari eskainiriko Agiñako monumentuaren argazkia sakonean eta Mikel Laboaren errautsak haizatu zireneko lekua eta izpiritua denon barrenean.

Kultur politikek hizkuntzazko bereizketa behar duten, hizkuntza bat-kultura bat, euskarak eta euskal kulturak gune hegemonikoak behar dituen edo euskal kultura euskarazkoa bakarrik den zalantzei erantzunez jarri gintuen Loreak. «Hizkuntza hegemonikoetan horrelako galderek ez dute lekurik» dio berak. Joxe Azurmendiren aipuak ere asko izan ziren bere hitzaldian; «kultur minorizatuak herri minorizatu batean soilik ematen dira». Botereak esaten du normalean zer garen baina momentu batean azpikoak hasten dira euren burua definitzen eta horretarako espazioak, sistema propioak, eraikitzen. «Eta komunitate horretan nortzuk daude? Ba euskaldunak, euskara da komunitatea». Euskarazko kultur kontsumoari buruz egin zen ikerketa batean, bakarrean, euskal kultura gehien Gipuzkoan kontsumitzen zela eman zuten datuek, euskaldun gehiago dagoen lekuan. Baina proportzionalki Gasteizen ematen zen kontsumorik handiena, euskaldun kontzientziadunen, euskararen etorkizunarekin kezka dutenen, kontzentrazio handiagoa dagoen lekuan beraz. Euskaldun asko eta euskaltzale gutxi dauden eremuak ere badaudela diosku, hortik beraz, jarrera, kezka eta kontzientziak duten garrantzia.

«Ikastola eta eskoletan zelako ezagutza erreproduzitzen den aztertzea ere interesgarria litzateke» dio Agirrek, «kultura erreferenteak oinarrizko hezkuntza curriculumean» Begoña Bilbaoren lana aipatuz. Eskolak bermatzen du euskal kulturaren transmisioa? Hizkuntza da muina baina ez da soilik hizkuntza transmititzea gure zeregina, berorren aldeko jarrera transmititzea da beharrezko. Euskara biziberritzea gizartea eraldatzeko modu bat izan baitaiteke.

Euskara erdigunean jartzen duen sortzaileak badaki eragile eta sustatzaile izan behar duela. Transmisio bideak antolatu behar ditu, merkaturatze sistema propioak antolatu, administrazioaren elkarlana behar du… Euskal sorkuntzaren agertoki unibertsal iraunkor bat sortzea, prestigio handiko proiektu kultural eta arkitektoniko batean zuten burua Sorguneak ikertegikoek, 2008tik 2011ra Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat eginiko ikerketan. Agirrek esan moduan «Aldundiari eginiko probokazio bat zen, ez zioten heldu, ez zuten amua harrapatu baina guk bota egin genuen…Tabakalera euskal kulturaren eskuetan uztea». Hauexek beraz, gu izatearen albo-kalteak eta ez izatearen ajeak.

2013-04-30

Euskal literatura da 'un rollo'

Jon Artano Izeta

Behartutako audientzia du: hormonak bor-borka dituen gazte samalda. Lehen ere, eskolan agindutako *rollo*-a zen bere irakasgaia; orain, gainera, pantailak daude dokierki (*hitzmoloia* zilegi bazait). Eta gaztetxoek nahiago dituzte pantailak. Helduek baino are nahiago, alegia. Literaturako irakaslea da istorioko protagonista, eta itzelezko desafioa du. Curriculumak seinalatu dizkio ikasleentzako hiru helburuak: Historiako lan eta egile garrantzitsuenak ezagutzea, gaitasun komunikatiboak garatzea eta irakurzaletzea. Asmo politak dira, baina inork ez dio esan nola egin horiek lortzeko.

Idurre Alonsok euskal literaturaren transmisioaz hitz egin digu. Hego Euskal Herriko batxilergoan egoera zein den ikertu du doktore tesian. Bestela ere gordina da panorama, eta hizkuntza zapaldua izateak berezitasun dezente dakarzkigu. Hizkuntza eta literatura irakasgai berean biltzea kalterako da, biek ala biek behar dutelako espazio propioa. Irakasle askok hizkuntza lehenesten dute, EGA prestatzeko adibidez. «Kontua da hizkuntza ikastea ere berma daitekeela literaturatik» dio Alonsok.

Jendea irakurzaletasunetik babesteko neurri profilaktiko bikainak garatu dituzte errezeta zaharrek: garai-egile-obrak buruz ikasaraztea, edo derrigortuta leitutako liburuez testak egitea. Indarrean dirauten metodo horiei «konpetentzien markoa» gainjarri zaie. «Ikasleak pentsatzen ikasi behar du, imajinatzen, ideiak ordenatzen, sintetizatzen, mundua ezagutzen, talde-lanean… eztabaidatu eta argudiatzen». Boladan jartzen ari da lana proiektuka antolatzea, sarritan itzulpenak baliatuz. Eta arriskua dago hor, euskal literatura irakastea *ahatz* daitekeelako. Eta bi ereduen artean irakasleak nora ezean daude. Bakarrik, laguntzarako tresnarik gabe, gidarik gabe.

Frantses eta espainolak laxoagoa ibil daitezke, irakurzaletzen den ikasleak gero ere joko duelako beren literaturetara, gurean ez. «Eskolarekin bukatzen da euskal literaturarekiko lotura askorentzat». Ezinbestekoa da, beraz, ikasleek «geurea ezagut dezaten». Berriki ikerketa egin du Maxixatzen elkarteak Azkoitian. Gazteei sortzaileen zerrenda jarri diete aurrean. Emaitza: atzerriko artistak askoz hobeto ezagutzen dituzte bertakoak baino. %18k du Kirmen Uriberen berri.

Etxeko irakurgaiak aukeratzeko ez dira helburu pedagogikoak begiratzen, merkatuarekin lotutakoak dira irizpideak. Eta merkatuan berebiziko eragina dute ikastetxeetan agindutako irakurgaiek. Sorgin gurpila. Eta gainera narraziogileak baino ez dira lantzen. Ia zerrenda berekoak denean. Saritutako idazleak, gipuzkoarrak, gizonezkoak… Gaztetxoen kezka eta gustuetatik hurbil dauden lanak ematea ere komeni da, aisialdian euskaraz leitu dezaten. Ba, hori, errotikako aldaketak behar ditugula.

2013-05-14

Irauli eta iraun

Nagore Amondarain

Lasarte-Oria herri berria dugu, 1986an eratu baitzen herri moduan; Urnieta, Hernani eta Andoaingo lur eremuak batuta. Sasoi hartan eman zioten hasiera Euskararen Maratoiari. Lasartearrek euskaldun izateko duten nahia sinbolizatzen duen jaiari. Eten barik, 40 orduz euskaraz egitea da maratoiaren funtsa. Eta zelan ez, bertako kideak ezagututa, umorez eta umoretik antolatzen den jaia da, jadanik zortzi aldiz egin dena. Hainbat lasartearren bisitak gidatu zuen aurreko asteko eskola. Joxe Mari Agirretxe Porrotx izan genuen hizlari, tartean: «Euskararen Maratoia sortu genuen, baina egunero euskaraz aritzeko espazioak sortu behar ziren maratoiaz gain». Aipatu zuenez, Michelin enpresak egun batetik bestera lau mila pertsona ekarri zituen kanpotik, eta elkarbizitza eta herri nortasuna euskaratik eraikitzea posible egin dute lasartearrek. «Euskara erdigunean jarri nahi izan genuen, denentzat toki bat izan zedin nahi genuen». Eta egitasmo ezagunak eman ditu herri eta maratoi honek, Euskal Herriko etxe guztietara sartu den irriaren fenomenoa, adibidez.

Kukuka antzerki eta dantza eskola ez genuen askorik ezagutzen, eta hori aurkezten aritu zitzaizkigun eskolan izandako saioan. Baina argi utzi ziguten ez dutela antzerkian soilik espezializaturiko herri bat nahi, ahalik eta eskaintza oparoena nahi dutela beren herritarrentzat. Auzoko antzerki eskola zena Lasarte osora eta inguruko herrietara zabalduz joan den Kukuka bihurtu da. Hasieran, berrogei pertsona ziren eskolan, eta, hamaika urteko ibilbidearen ondoren, ia zazpiehun pertsona.

Kopuru horiek ikusita, Zurriola ikastolako antzerki eskolara jo zuten antzerki zein dantza irakasle bila. «Kanpoan ikusten ditugu herriko asko hau eta bestea egiten, baina guk herrian behar ditugu». Eta horrela erakarri zuten Maider antzerki irakaslea. Maiderrek berak ere hala azaldu zigun: «Lasartearrago sentitzen naiz orain Kukukarekin. Nortasunik gabeko herria zenean, lotsatu eta dena egiten nintzen nire jatorriaz. Eta, gainera, ikasleek irakatsi didate irakasle izaten». Halakoa izan zen irakaslearen aitorpena, eta ez zen gutxiagorako izan Donetz ikaslearen testigantza. «Zuen aurrean banago orain hitz egiten, antzerkia landu dudalako da. Lehen, kiroldegira joatean nintzen; orain, Kukuka daukat. Gehiago eman dit: talde bat…». Kulturaren bidetik transformazio sozial bat zelan eman den erakutsi digu Kukukak. Euskaratik bultzatutako kohesio soziala. Eta herri transformazioan sinesten zuen masa kritiko nahikoa zegoelako izan zen posible. Baina apustu serioak behar dira instituzioen aldetik, horrek guztiak irauteko egiturak elikatu behar direlako. Ohartu ez direnentzat, Euskal Herriko antzerkiaren abangoardia ere euskaratik egiten baita egun iparralde zein hegoaldean.

2013-05-21

Amaiurtik Sartagudara, Anoetatik barrena

Jon Artano Izeta

Bide-orria hitzaldiaren izenburu horretan ekarri du Mikel Errazkinek. Eta goiburuaren azpian hau:Memoria historikoa zertan den XXI. mendeko Euskal Herrian. Ertz asko ditu gaiak, eta zorrotzak gehienak, identitate nazionalei, osatu gabeko gatazkei eta tradizioei lotuak.

Amaiur. Traszendentzia txikia izan zuen bataila baten kokagunea sinbolo nola bihurtu den kontatu digu. Iazko udan, Nafarroako konkista hasi zeneko bosgarren mendeurrena zela eta, jeneralean baino ikusmirante gehiago ibili da Amaiurren: «Mekarako erromesaldi txikia izan da». 2006tik indusketan ari den taldekoa da Errazkin, eta pasioz xehatu dizkigu hango lanarekikoak. Pasioz salatu du, halaber, «sasi-historialarien esku hartzea» —argitaletxe batzuen konnibentziarekin— eta «erabilera politiko eta dogmatikoa. Memoria historikoa da iragana ulertu eta oraina interpretatzeko bidea, ez proiektu politiko bat justifikatzeko; horretarako, gaurko herritarren nahiak behar luke oinarria». Nabarralde taldeaz galdetu diote. Jaime Ignacio del Burgo buru, Nafarroa esentzialki espainola dela defendatu duen korronte navarrista-rekin erkatu du, «ispiluaren proiekzioa dira Nabarraldeko hainbat egile, baina aurkako norantzan». Santi Leoneren Euskal Herri Imajinario baten alde laudatu du. Ikasle honek etxeko lanak egin ditu lan hori leituz.
Leonek navarristak ipurdi bistan lagatzeaz gain, Nabarraldekoei ere galanki ematen die egurra. Beren egia ukaezina eta ukiezina zurkaizteko aurrekoen metodoa kopiatzeagatik, ebidentzia zientifikoak komeni den tesira makurraraziz.

Sartaguda. Louis Joinet legelariaren zita irakurri digu: «Orrialdea pasa aurretik, lehendabizi irakurri egin behar da». Eta irakurriko bada, idatzi egin behar. Memoriaren parkearen garrantziaz eta deshobiratutakoen izenak eta historia berreskuratu beharraz mintzatu da, biktimen eskubideak —egia, justizia eta erreparazioa— helburu. Errelato bat eta bakarra, gerra irabazi zutenek eraikitakoa, izan da indarrean orain gutxira arte eta «prozesu honek erakutsi du errelatoen aniztasuna kontuan hartzeak duen garrantzia». Spielberg-en Schindler's List pelikulako fotograma bat postrerako. Zuri-beltzeko argazkian, jende multzotik, beroki gorridun neskatoa nabarmen. Tragedia kolektibo baten kontaketan fokua indibiduoan jarrita. «Historia zuri-beltz horretan memoria historikoa izan daitekeelako baztertutako hainbat kolektibori ahotsa emateko mekanismoa».

Anoeta. Aspaldi galdutako dantza-soka berreskuratu zuten anoetarrek 2003an. Kasuak balio du identitate lokalen bilaketaz eta tradizioen berrasmatzeaz gogoeta eragiteko. Gizartearen aldaketek tradizioetan sortutako eguneratze premiak, emakumeen parte hartzea adibide dantza-sokan, egoera tenkatu dezakete. Anoetan ez zen gertatu, baina

esentzia gordezaleen eta talde kohesioa lehenesten dutenen arteko tentsioak egoera noraino gaiztotu dezakeen badakigu. Errazkinek garbi du: «Tradizio batek ez badu lortzen taldea kohesionatzea bere funtsa galtzen du». Eta beste gogoeta bat: «Irudipena dut hegoaldean kultur ekitaldiak ez ote ditugun kontsumorako sortzen, herriko harreman sareak indartzeko baino gehiago».

Gazteekiko transmisioan higadura sumatzen den garai berean, paradoxikoki, «iraganaren gurtza» boladan dago: kultur ondarea balioan jartzea, oroitzapen-ospakizunak, sustraien bilaketa… lurrean sartu nahi ditugun taketak, espazioan eta denboran kokatzeko. Gero eta azkarrago aldatzen ari den munduko abantadak haizatutako erreferentzia puntuak ordezkatzeko.

2013-05-28

Anari gara

Nagore Amondarain

Ruperren anekdota bat ekarri digu Anarik: Soñuako estudioetan tipo gazte bat agertu zela, musikaria zena eta Ingalaterran egonaldi bat eginda bueltan zetorrena, aurrenekoz *royalty*-ei buruz berba egiten. Han ezagututakoa hemen proposatzera zetorren hura Fermin Muguruza zela; «erreferentzia handi bat izan da niretzat», dio Anarik.

Azkoititik Gasteizera doanean bizitzera, diskoa grabatzeko aukera ateratzen zaio Esan Ozenki-rekin. Disko akustiko bat grabatzeko hautua egiten du hardcoretik datozen Abrego eta Strubellekin, BAP eta Dut-en altzoan bezala. Eta era inkontziente batean, eszena bat hautatu zuen: «Gu talde gogorragoak mugitzen diren zirkuituetan mugitzen gara».

Ni-tik Gu-ra egiten duen saltoan, sortzaileak, industria eta krisia aipatzen dira. Etsipenaren diskurtsoak kritikatu ditu Anarik. «Ez badago industriarik ez dago sortzailerik?». Jendea joaten da kontzertuetara eta zaleak daude. «Eta krisia?» Krisian egonda Lisabok diskorik onena eta Canok eleberririk onenak egin dituztela gaineratu du. Euskarazko prentsari eskerrak eman behar zaizkiola dio, herri honetan auto-ekoizpenaren bidea hautatuagatik badagoelako aukera medio horietan bide bat egiteko. «Bilatu egiten gaituen kazetari jendea dago hor»; beraz, ez da beti behar egitura handi bat atzetik. Honek demokratizazio bat dakarrela dio, libreago aritzeko aukera ere.

Hurrengo urratsean legoke arazoa, zabaltzean. Oso garestia baita banaketa eta sare publiko baten beharra ikusten du. Egunkari honek duela hilabete jasotako Koldo Almandozen diskurtsoarekin bat egiten du berak, ez baita justua Australiako ereduarekin konparatzea, Galesekoarekin konparatu beharko ginatekeenean. Ezin gatzaizkio adjektibo negatiboak jartzen hasi euskal kulturari ez dagoelako profesional nahikoa, batere profesionalak ez diren profesional asko dagoelako eta aldrebes. Bere garaiko askok Lurdes Iriondo ezagutzen ez zuten moduan belaunaldi gazteek ere ez dutela bera ezagutuko dio, «dena mantentzearekin obsesionatuta bizi gara». Bere ardura adibidez, Belako bezalako talde gazteek euskaraz kantatzea dela, «norbera ez da inportanteena, kolektiboa da inportantea».

Poemak kantatzearen gehiegizko joeraz dio, *Hautsi da Anphora*-tik datorrela joera,

baina poema ona izateagatik ez duzula beti abesti onik. Despoetizazioan aurrera egin nahi duela dio, *Zebra*-n hasiera eman zionetik. «Norbere unibertsoak kantatuz ere oso letra onak atera dira».

Komunitate handi/txikiak erkatzean eta azkenaren abantailez berba egitean, Nacho Vegas batek beraiek beste saltzen duela dio; «gu maitatuak sentitzen gara herri txiki honetan, baina Vegasek zailago izango du». Eta Victoria Eugeniako kontzertua aipatzean, begiak hezetzerainoko emozioz dio espazio hura beraiena egitea bezala izan zela, publikoaren erregalu bat izan zela konkista hura. Gu horretan biltzen den Bidehuts kolektibotik, sarritan, Lisabo aipatu du. «Zer gertatzen da munduko talderik onena, bere estiloan, euskaraz bada?». 2012ko Primavera Sounden hiru mila pertsonaren aurrean jotzen dute profesional izan gabe.

2013ko Primavera Soundetik bueltan ontzen da kronika hau, profesional izan gabe profesional handia den Anari busean, atzeko eserlekuan, topatzen dudanean. Gurpil baten leherketaren ondorioz, hiru orduko atzerapenarekin, desordutan, iristen da busa Donostiara, gaztelaniako irakaslea hurrengo egunean hutsik gabe lanera joateko.

2013-03-05

Gorriak

Jon Artano Izeta

Duela bi urte inauguratu zuten Euskal Herriko museo zaharrenari erantsitako oskol berria. San Telmo museoaren metamorfosia ez da azal mudatze soila izan, museoaren kontzeptua bera berrikusi dute. Gaur egungo kontuak lantzeko lekua badela frogatu nahi dute, ez zaharkinak gordetzeko zurkulua. Horregatik erabaki zuten estreinako erakusketaren gaia *Euskara!* izatea. Eta enkargua Joxean Muñozi eman zioten.

Ernamuinean zeuden asmoez, talde lanaz, ideia lapurretaz, orekak gorde beharraz, azalean geratzeko arriskuaz, neurrian sartzeko zailtasunaz... *Badu Bada*. *Euskara mundu eleanitzean* erakusketaren sortze prozesuaz aritu zaigu Joxean Muñoz. Seduzitzen daki. Benetako pasioa igarri zaio gizonari, eta hizlari aparta da, gainera.

Erakusketaren publikoaz hitz egiteko zirkulu bat erakutsi digu. Muinean gorria da, eta hor kokatu ditu euskaldun kontzienteak, «erakusketaren xede nagusia». Kanpoaldean hiru eraztun ditu gorriuneak: euskaldun pasiboena bat, inguru euskalduna duten erdaldunena hurrena, eta *a priori* interesik ez duten erdaldun petoena azkena. Guztiengana iritsi nahi zuen erakusketak.

Hiru hilabetean 17.531 lagun izan dira *Badu Bada* ikusten, gehienak *gorriak*. Estatistikarik ez duen arren, Muñozek uste du apenas erakarri dutela erdaldunik. Eta horixe bere arrangura handiena: erdaldunak erakartzeko «komunikazio espezifikoan» behar beste saiatu ez izana. Hasieratik helburu bakarra euskaldun kontzienteak izan balira erakusketa «oso diferentea» zatekeela nabarmendu du Muñozek: «Askoz mingotsagoa. Erakusketak duen puntu atsegin goxo hori erdaldunak ez uxatzeko eman baitiogu; nekez erakarriko duzu inor diskurtso agonikoarekin, 'etor zaitez hona, hemen asko sufritzen da-eta' esanaz. Nekez erdaldunak eta, beldur naiz, nekez gazteak». Medio eta iritzi sortzaile erdaldunekin elkarlana behar adina sustatu ez izanaz damu da. «Erdaldun jendea erakartzeko ahalegin oso berezia egin behar da. Eroso bizi dira kanpo, eta tentatu egin behar ditugu, modu sistematikoagoan».

Hor geratu da ikasle hau kateatuta. Erdaldunak erakartzeko, Gemma Niergak edo Iñaki Gabilondok —bi izen horiek aipatu zituen Muñozek— propaganda ona egin ezean alferrik ari al gara? Ez al dago beste estrategiarik? Eta erakarri al daitezke publiko mota guztiak produktu bakarra diseinatuz?

Eskolaren azken tartean, Jaurlaritzako Kultura sailburuorde gisara dituen erronkez galdetu diote. Lanean daraman tartean egoera «uste baino gogorragoa» dela jabetu da Muñoz. Egun hartan bertan Gatzagaetxebarria Ekonomia sailburuak hizkuntz politikan eta kulturan mozketa «handiagoa» iragarri zuen, «lehentasunezko arloei» gutxiago

eragiteko. Lehen ez dugu asko falta gorririk geratzeko eta...

Badu Bada-n, Europako hizkuntzak irudikatuz, sabaitik zintzilik koloretako 68 globo zeuden. Euskararena gorria, hor ere. Hari begira Maialen Lujanbiok kantatu zuen: «Bizigrina edo larritasuna / horixe nire zalantza».

2013-06-11

'Hambre'-ko oturantza

Nagore Amondarain

Eskola egun honetan kontatu behar diguna berria dela esanez hasi du hitzaldia Bernardo Atxagak, graduondokoaren azken egunean. Herri honen ideologiak eraikitzean egon diren geruzei buruz berba egitera etorri da.

Ez omen zen berdina 1940an pobre izatea Bilbon edo Alkizan. Mendian bi aldiz omen ziren pobre. Eta hor hasten da aipatzen Eliza eta honen bitartez apaiztegietatik pasatako hainbat intelektual. Aurrenekoa, geruza katolikoa, beraz. Kristautasunetik bereizten du, katolikoak bestelako mugak ekarri baitzituen: sakrifizioaren kontzeptua, sexurik gabeko bizitza, martiriak… «Kultura bat horrelako ideologia estu batean ezin da guztiz garatu». Frankismoaren kontrako plataforma guztiak egitura katolikoaren babesean sortuak zirela dio, *Etor*, *Auspoa*, *Karmel*, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Jakin*… aipatuz.

Hambre-ko ostatuan 1972an egin zen oturuntza erdi klandestinoaz jardun du ondoren. Bera ere han zela, urte hartan bizitzako lehen artikulua argitaratu baitzuen eta. «Nahikoa da artikulu bat ateratzea euskal kulturan sartzeko. Hori, egun ere ez da asko aldatu». Oturuntza hartako mahai bueltako kideak aurkeztu zituen: Gabriel Aresti, Lur argitaletxekoak, Patxi Zabaleta, Xalbador Garmendia, Oteizaren jarraitzaile bat (ez du haren izenik eman), ETAren inguruko jende bat ere han zela...

Bigarrena geruza erromantikoa litzateke, eta hura azaltzeko hiru data aipatu ditu: 1801, Wilhelm Von Humboldtekin (*Euskaldunak* liburuarekin), 1923, Telesforo Aranzadirekin (aurreko liburuaren itzulpenarekin), eta 1963, Jorge Oteizarekin (*Quosque Tandem*-ekin). Euskal kulturan eta beronen historian lehen mailako garrantzia izan duten gertaerak. Errelato bat behar omen du edozein herrik munduan toki bat izan nahi badu, eta «errelato erromantikoa egin zigun Humboldtek, herri hau munduan kokatuz. Hizkuntza txikia aipatzeaz gain *nazio* hitza haizatu zuen». *Hambre*-ko bazkarian katolizismotik zetozenak eta ez zetozenak bigarren geruza honetan elkartzen direla dio. Eta giro antifrankista hartan fusio bat ematen da, berezitasun etnikoak eta arte modernoa uztartuz: Oteizak txalapartari eman ziona, edo Arestik berreskuratutako Jose Ignazio Barrutiaren *Gabonetarako ikuskizuna,* adibidez. Garai zaharretako geruzak bata bestearen gainean ditugu egun ere, eta bi geruza baino gehiagoz ere berba egin daiteke. Gerra ideologiko eta ekonomiko itzela ere egon zen euskal marxista eta eliza aurrerakoien artean; UEUren sorreran adibidez. Berak, Mitxelenak bere garaian bezala, publikoaren aldeko hautua egin du nabarmen.

Klasismoaren gaia asko interesatzen zaiola dio. «Zergatik ez nintzen lerratu Donostiara

eta bai Bilbora? Nire ustez, Donostiako euskaldunek modu klasistan tratatzen dituztelako herrietakoak». Horrela bedeinkatu zigun azken oturuntza Atxagak.